



**SOLDATAK, PENTSIOAK,
LANGABEZIA
PRESTAZIOAK ETA
GIZARTE
AURREIKUSPENEKO
ERRESKATEAK
GIPUZKOAN**

2024



AURKIBIDEA

1.	SARRERA.....	2
1.1	Datuen jatorria	2
1.2	Aztertutako kontzeptuak.....	3
1.3	Aztertutako kolektiboak	4
1.4	Aztertutako aldagaiak.....	5
2.	IKUSPEGI OROKORRA	7
3.	SOLDATAK.....	10
3.1.	Soldatak sexuaren arabera.....	14
3.2.	Soldatak nazionalitatearen arabera	17
3.3.	Soldatak adinaren arabera	20
3.4.	Soldatak LGSaren tarteen arabera	21
3.5.	Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik.....	22
3.5.1.	Izaera juridikoaren arabera.....	22
3.5.2.	Langile kopuruaren arabera.....	26
3.5.3.	Sektoreen arabera.....	27
4.	PENTSIOAK	32
4.1	Pentsioak sexuaren arabera	33
4.2.	Pentsioak adinaren arabera	36
4.3.	Pentsioak Gutxieneko Pentsioaren tarteen arabera	37
5	LANGABEZIA PRESTAZIOAK	38
5.1.	Langabezia prestazioak sexuaren arabera	39
5.2.	Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera.....	41
5.3.	Langabezia prestazioak adinaren arabera	42
5.4.	Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera	43
6	GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK.....	44
6.1.	Errenta moduan egindako erreskateak	44
6.1.1.	Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	45
6.1.2.	Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera .	46
6.1.3.	Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera.....	47
6.1.4.	Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	48
6.2.	Kapital moduan egindako erreskateak	50
6.2.1.	Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera..	51
6.2.2.	Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera..	53
6.2.3.	Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera	53
6.2.4.	Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak	55
6.3.	Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak	56



1. SARRERA

Txosten honen helburua da Gipuzkoako lan-merkatuaren ikuspegi orokor bat ematea, eta aldi berean denboran zehar izan duen bilakaera ikustea.

Gainera, eta berritasun bezala, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Azterketa bi alderditik egingo da:

- Soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioak eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak jasotzen dituzten pertsonak aztertuta.
- Soldatak ordaintzen dituzten entitateak aztertuta.

1.1 Datuen jatorria

Aztertzen diren datuak 190 ereduan aitortutakoak dira: Lan etekinen, ekonomi jardueren etekinen eta sarien gaineko atxikipenak eta konturako sarrerak (urteko laburpena).

Aitorpen hori soldatak, pentsioak, langabezia-prestazioa eta Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak ordaintzen dituzten erakunde guztiek aurkezten dute, edozein izanik ere bere nortasuna, bere jarduera, tamaina edo izaera publiko/pribatua.

Aitortzaile bakoitzak errenten hartzaileen zerrenda bat aurkezten du: ordaindutako zenbatekoa, kontzeptua... Zerrenda horietan PFEZri lotutako errentak lortzen dituzten pertsona guztiak agertzen dira, nahiz eta errentak salbuetsiak egon, zenbateko minimora heltzen ez delako atxikipenik ez egin...

Jasotzen diren datuetan agertzen ez direnak etxeetan lan egiten dutenen soldatak dira, eta hau horrela da ordaintzailea ez delako enpresaria eta 190 eredua ez duelako aurkezten.

Beraz, informazioa osoa eta zehatza da. Eta horren bidez, bai Gipuzkoako biztanleek jasotako eta bai Gipuzkoako enpresek sortutako lan errenten kuantifikazioa eta deskribapena lortzen da.



Dena den, bai oro har eta gehienbat batez bestekoak aztertzerakoan, kontuan izan behar da, nahasita agertzen direla urte osoa lan egiten dutenen datuak eta aldi baterako kontratuak dituztenen datuak, lanaldi osoa egiten dutenena eta lanaldi partzialekoak...

1.2 Aztertutako kontzeptuak

- **Laneko errentak**

190 ereduan A, L15, L35, L36, L37 eta F gakoekin datozen errentak. (Lanagatik sortutakoan, LET B gakoa eta L27 bertan kontuan izaten dira).

- **Pentsioak**

190 ereduan B gakoa (BGAEetatik, pentsio planetatik eta gainerako aurreikuspen sistematik jasotako prestazioei dagokien azpigakoa izan ezik), eta L06 eta L07 gakoarekin datozen errentak. Hau da, Gizarte Segurantzatik, haren ordezeko entitateetatik eta Klase Pasiboen erregimenetatik jasotako pentsio publikoak.

- **Langabezia prestazioak**

190 ereduan C eta L13 gakoarekin datozen errentak.

- **Gizarte Aurreikuspeneko erreskateak**

190 ereduan B02 eta L18 gakoak (2014tik aurrera B03, B20, B21, B22, B23, B24, B25, B26, B27 eta L18 gakoak) dutenak: Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate, Pentsio Plan, Mutualitate eta antzeko sistemetatik jasotako erreskateen zenbatekoak.

Hemen bi eratako erreskateak aztertuko dira:

- Errenta moduan jasotakoak.
- Kapital moduan jasotakoak.

Azterketatik kanpo geratzen dira 190 ereduan agertzen diren beste errenta mota batzuk; esaterako, jarduera ekonomikoko etekinak (nekazaritza edo profesionalak), sariak, irudi-eskubideen lagapena, kontseilari eta administrarritza dietak.



1.3 Aztertutako kolektiboak

- **Jasotzaileak**

Jasotzailearen ikuspegitik bakarrik kontuan hartzen dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan helbideratuak dauden pertsonen datuak, nahiz eta ordainketa beste lurralde batean dagoen ordaintzaile batek egina izan.

190 ereduaren berezitasunetako bat aniztasuna da: gerta daiteke pertsona batek urte batean zehar bi ordaintzaile edo gehiagoren ordainketak jasotzea, edota errenta mota desberdinak jasotzea (laneko errenta eta langabezia prestazioa; laneko errenta eta pentsioa...).

Orduan, hiru kolektibo desberdintzen dira:

1. **Soldatapekoak:** laneko errentak lortzen dituztenak. Zer gertatzen da pertsona batek ordaintzaile bat baino gehiagotik laneko errentak jasotzen dituenean? Kasu horietan, pertsona hori proportzionalki zenbatuko da entitate bakoitzean soldatapeko bezala: entitate bakoitzak ordaindutakoa, zati laneko errenta osoak. Esaterako: pertsona batek 40.000 euro jasotzen ditu urtean: 10.000 euro A enpresatik eta 30.000 euro B enpresatik. Oro har, soldatapeko 1 bezala kontabilizatuko da; baina adibidez jardueraren arabera sailkatzerakoan A enpresan 0,25 soldatapeko bezala hartuko da (10.000/40.000), eta B enpresan 0,75 bezala (30.000 / 40.000).
2. **Langabetuak:** langabezia-prestazioak jasotzen dituztenak.
3. **Pentsiodunak:** pentsioak jasotzen dituztenak, B02 eta L18 gakoak errentak jasotzen dituztenak izan ezik (2014tik aurrera B03, B20, B21, B22, B23, B24, B25, B26, B27 eta L18 gakoak).

- **Ordaintzaileak**

Laneko errentei dagokionez, azterketa beste ikuspegi batetik ere egiten da: ordaintzailearen ikuspegitik. Kasu horretan kontuan hartzen dira Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileek ordaintzen dituzten soldata guztiak, nahiz eta jasotzaileak beste lurralde batean helbideratuak egon.



1.4 Aztertutako aldagaiak

Txostenean zehar aztertuko diren aldagaiak honako hauek dira:

- Jasotzaile kopurua
- Errentak guztira
- Batez besteko errenta
- Ordaintzaile kopurua

Sailkapenak

Datuak azaltzerakoan zenbait sailkapen erabiliko dira:

- Jasotzailearen adina
- Jasotzailearen sexua
- Jasotzailearen nazionalitatea
- Errentaren tartea
- Ordaintzailearen jarduera sektorea
- Ordaintzailearen izaera juridikoa
- Ordaintzailearen tamaina (langile kopuruaren arabera)



			Aldagaiak	Sailkapenak
KOLEKTIBOAK	ENPLEGUA	JASOTZAILEAK	Soldatapeko kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Adina Sexua Errenta tartea Nazionalitatea Udala Eskualdea
		ORDAINTZAILEAK	Ordaintzaile kopurua Jasotzaile kopurua Soldatak guztira Batez besteko soldata	Izaera juridikoa Jarduera sektorea Tamaina
	PENSIOAK	LANGABEZIA-PRESTAZIOA	Langabetu kopurua Prestazioaren batez bestekoa Prestazioa guztira	Sexua Adina Prestazioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea
		PENTSIO PUBLIKOAK; MUTUALITATEAK ETA LAGUN-ARO INSS ORDEZKATZEN DUTENEAN	Pentsiodun kopurua Pentsioaren batez bestekoa Pentsioa guztira	Sexua Adina Pentsioaren tartea Nazionalitatea Eskualdea
	BGAE - PP – MUTUALITATE ETA ANTZEKO SISTEMEN ERRESKATEAK: ERRENTA MODUAN ETA KAPITAL MODUAN	Pertsona kopurua Erreskateen zenbatekoa Erreskateen batez bestekoa	Sexua Adina Erreskatearen tartea Eskualdea	

2. IKUSPEGI OROKORRA


2024. urtean 522.332 gipuzkoarrek jaso dituzte soldatak, pentsioak edota langabezia prestazioak. Guztira jasotako zenbatekoa 15.287 milioi euro dira, hau da, 29.267 euro batez beste.

- Taularen lehenengo zutabean 2024an zehar soldatak bakarrik jaso dituztenak azaltzen dira (293.029 pertsona; %56,1).
- Pentsioak bakarrik (2. zutabea) 168.651 pertsonak jaso dituzte, guztien %32,3.
- 3. zutabean langabezi prestazioak bakarrik jaso dituztenak aztertzen dira: 9.142 pertsonak (guztien %1,8).
- Lana egiteagatik soldata eta sistema publikoko pentsioa 14.676 pertsonak (guztien %2,8) jaso dute (4. zutabea).
- 5. zutabean laneko soldata eta langabeziako prestazioa jaso dituztenak daude: 34.857 pertsona (guztien %6,7).
- Pentsioa eta langabezia prestazioa 1.258 pertsonak jaso dute (6. zutabea).
- Eta hiru etekin motak (lana, pentsioa eta langabezia prestazioa) 719 pertsonak jaso dute (7. zutabea).
- INEMek ordaindutako langabezia prestazioak 188.751.973 eurokoak dira, eta 45.976 pertsonen dagokie.

Taula 1. 2024ko datuen ikuspegi orokorra

		Soldatapekoak (1)	Pentsiodunak (2)	Langabetuak (3)	Soldatapekoak eta pentsiodunak (4)	Soldatapekoak eta langabetuak (5)	Pentsiodunak eta langabetuak (6)	Soldatapekoak, pentsiodunak eta langabetuak (7)	GUZTIRA
SOLDATAK	Pertsonak	293.029			14.676	34.857		719	343.281
	Zenbatekoa guztira (€)	9.657.800.776			290.567.766	657.483.749		9.057.155	10.614.909.445
	Batez bestekoa (€)	32.959			19.799	18.862		12.597	30.922
PENTSIOK	Pertsonak		168.651		14.676		1.258	719	185.304
	Zenbatekoa guztira (€)		4.150.243.167		309.378.538		14.383.378	9.265.267	4.483.270.351
	Batez bestekoa (€)		24.608		21.081		11.434	12.886	24.194
LANGABEZIA PRESTAZIOAK	Pertsonak			9.142		34.857	1.258	719	45.976
	Zenbatekoa guztira (€)			55.366.624		125.105.874	5.707.035	2.572.440	188.751.973
	Batez bestekoa (€)			6.056		3.589	4.537	3.578	4.105
GUZTIRA	Pertsonak	293.029	168.651	9.142	14.676	34.857	1.258	719	522.332
	Zenbatekoa guztira (€)	9.657.800.776	4.150.243.167	55.366.624	599.946.304	782.589.623	20.090.413	20.894.861	15.286.931.768
	Batez bestekoa (€)	32.959	24.608	6.056	40.879	22.451	15.970	29.061	29.267


Grafikoa 1 – Jasotzaileen banaketa etekin motaren arabera eta talde esanguratsuenen batez bestekoa



2024an soldatak bakarrik jaso zituzten pertsonen batez besteko soldata 32.959 euroko izan zen; pentsioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko pentsioa 24.608 eurokoa izan zen; eta langabezi prestazioak bakarrik jaso zituztenen batez besteko prestazioa 6.056 eurokoa.


Jasotako zenbatekoari dagokionez, 15.287 milioi eurotik, gehiengo nagusia (10.615 milioi euro; %69,4) soldatak dira; pentsioak guztiaren %29,3 dira (4.483 milioi euro), eta langabezia prestazioak 189 milioi euro (guztiaren %1,2).

Grafikoa 2 – Etekinen banaketa etekin motaren arabera



Etekin motaren arabera, batez bestekori handiena laneko etekinek dute, 30.922 euro; pentsioen batez bestekoa 24.194 eurokoa da; eta langabezia prestazioena 4.105 eurokoa.

Grafikoa 3 – Etekinen mota bakoitzaren batez bestekoa



3. SOLDATAK

2024. urtean laneko soldatak 343.281 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %2,4 gehiagok. Zenbateko osoa, %6,4 igo da 2023rekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 30.922 euro izan dira.

Taula 2. Soldaten bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2015	304.835		7.404.618.191		24.291	
2016	310.811	2,0	7.610.321.945	2,8	24.485	0,8
2017	319.192	2,7	7.790.344.232	2,4	24.406	-0,3
2018	324.421	1,6	8.237.740.979	5,7	25.392	4,0
2019	330.326	1,8	8.579.555.593	4,1	25.973	2,3
2020	319.516	-3,3	8.274.749.959	-3,6	25.898	-0,3
2021	324.443	1,5	8.732.741.696	5,5	26.916	3,9
2022	333.984	2,9	9.454.211.153	8,3	28.307	5,2
2023	335.170	0,4	9.975.605.847	5,5	29.763	5,1
2024	343.281	2,4	10.614.909.445	6,4	30.922	3,9
2015/2024		12,6		43,4		27,3

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan soldatak jaso dituzten pertsona kopurua %12,6 igo da. Punturik altuena 2024an eman da: 343.281 soldatapeko.

Jasotako soldatei dagokionez, %43,4 igo dira 2015. urtetik. Daturik handiena 2024. urtean lortu zen (10.615 milioi euro).

Pertsonako batez besteko soldata %27,3 igo da hamar urte hauetan: 24.291 euroatik 30.922 euroara. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %24,4 igo dela.

Mediana edo erdiko balioa aztertuta, batez besteko soldataren antzeko bilakaera izan duela ikusi daiteke; eta 2015-2024 epealdian metatutako igoera batez bestekoa berdintsua da: %27,3 erdiko balioan eta 27,9% medianan.



Taula 3. Medianaren bilakaera (eurotan)

	Zenbatekoa	Bar. %
2015	21.716	
2016	21.745	0,1
2017	21.478	-1,2
2018	22.339	4,0
2019	22.873	2,4
2020	22.799	-0,3
2021	24.021	5,4
2022	25.142	4,7
2023	26.736	6,3
2024	27.765	3,8
2015/2024		27,9

Soldatak nola banatzen diren ezagutzeko, bere banaketa aztertzen da dezilen arabera. Horiek osatzen dira, soldata jasotzaile guztiak soldata txikienetik handienara ordenatuta, eta pertsona kopuru berdineko taldeak osatuz. Horrela, talde edo dezila bakoitzak soldata jasotzen duten pertsona kopuru osoaren %10a suposatzen du: lehenengo dezilan (D1) sartzen dira soldatarik txikienak jasotzen duten %10a, eta azken dezila (D10) osatuta dago soldatarik handienak jasotzen duten pertsonen %10arekin.

Taula 4. Soldaten banaketa portzentuala dezilen arabera

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
D1	0,4	0,4	0,4	0,5	0,5	0,5	0,6	0,6	0,6	0,5
D2	2,1	2,1	2,1	2,3	2,3	2,2	2,4	2,4	2,6	2,4
D3	4,2	4,2	4,2	4,4	4,4	4,2	4,5	4,6	4,8	4,7
D4	6,2	6,2	6,2	6,3	6,3	6,0	6,3	6,4	6,6	6,6
D5	8,1	8,0	8,0	8,0	8,0	7,9	8,1	8,1	8,2	8,2
D6	9,8	9,7	9,7	9,6	9,6	9,7	9,8	9,7	9,8	9,8
D7	11,8	11,7	11,6	11,5	11,5	11,6	11,6	11,5	11,5	11,5
D8	14,0	14,0	13,9	13,7	13,7	13,8	13,7	13,6	13,5	13,6
D9	16,8	16,8	16,8	16,5	16,6	16,7	16,4	16,3	16,1	16,2
D10	26,6	26,8	27,0	27,1	27,1	27,3	26,8	26,8	26,4	26,5

Horrela, 2024. urtean soldatarik baxuenak jasotzen dituztenen %10aren soldatak (D1 dezila), gipuzkoar guztiek jasotako soldaten %0,5 metatu dute. Aldiz, soldatarik altuenak jaso dituztenek (D10 dezila), soldata osoen %26,5a metatu dute.

2015-2024 epealdian bost lehenengo taldeak, hau da, soldata txikienak jasotzen dituztenak handitu egin dira portzentualki, eta D6tik D10era jaitsi. Gainera gehien igotzen den taldea soldata txikienak dituztenena da (D1). Aldiz, gehiena jaisten den dezila D9 da. Azken dezilak (D10) %0,4 soilik egiten du behera.



Taula 5. Bariazio portzentuala dezilen arabera

	2015/2024
D1	25,2
D2	16,1
D3	12,8
D4	5,7
D5	1,2
D6	-0,5
D7	-2,2
D8	-3,2
D9	-3,4
D10	-0,4

Medianari dagokionez, azken zortzi dezilatan mediana igo egiten da. Gainera, gehien igotzen dena soldata handienak dituztenena da (D10).

Taula 6. Medianaren balioa dezilen arabera

	2015	2019	2020	2021	2022	2023	2024
D1	802	1.103	1.259	1.333	1.444	1.518	1.340
D2	5.073	5.917	5.763	6.375	6.817	7.650	7.447
D3	10.154	11.578	10.859	12.089	13.122	14.388	14.716
D4	15.178	16.476	15.663	17.092	18.161	19.662	20.452
D5	19.687	20.795	20.408	21.742	22.791	24.433	25.367
D6	23.841	25.019	25.108	26.267	27.461	29.039	30.185
D7	28.532	29.819	30.015	31.068	32.480	34.111	35.547
D8	33.983	35.531	35.677	36.677	38.383	40.032	41.824
D9	40.636	42.784	43.155	44.032	45.979	47.670	49.744
D10	54.892	58.068	58.216	59.509	62.609	64.859	67.925

Taula 7. Medianaren bariazio portzentuala dezilen arabera

	2015/ 2024	KPI 15-24	Aldea	2019/ 2024	KPI 19-24	Aldea
D1	67,1	24,4	42,7	21,5	18,8	2,8
D2	46,8	24,4	22,4	25,9	18,8	7,1
D3	44,9	24,4	20,5	27,1	18,8	8,3
D4	34,7	24,4	10,3	24,1	18,8	5,4
D5	28,9	24,4	4,4	22,0	18,8	3,2
D6	26,6	24,4	2,2	20,6	18,8	1,9
D7	24,6	24,4	0,1	19,2	18,8	0,4
D8	23,1	24,4	-1,4	17,7	18,8	-1,1
D9	22,4	24,4	-2,0	16,3	18,8	-2,5
D10	23,7	24,4	-0,7	17,0	18,8	-1,8

Soldata banaketaren berdintasuna/ezberdintasuna aztertzeko beste modu bat, dezilen arteko ratioen bidez da.



- Soldaten D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko dezilan (soldata txikiak) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2024an 52,7ko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %10ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikiaren populazioaren %10ak jasotzen dituztenak baino 52,7 aldiz handiagoak direla.
- Soldaten S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen jasotzen duten zenbateko osoa, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen jasotzen duten zenbatekoarekin. 2024an 14,5eko ratio batek esan nahi du, soldata handieneko populazioaren %20ak jasotzen dituzten soldatak, soldata txikiaren populazioaren %20ak jasotzen dituztenak baino 14,5 aldiz handiagoak direla.

Taula 8. Dezilen arteko ratioak (%)

	2015	2019	2024	bariazioa 2015/2024	bariazioa 2019/2024
Soldatak D10/D1	66,2	54,4	52,7	-20,4	-3,2
Soldatak S80/S20	17,4	15,6	14,5	-16,2	-6,9
Mediana D10/D1	68,4	52,6	50,7	-26,0	-3,7
Mediana S80/S20	17,3	14,5	13,7	-20,7	-5,2

- Medianaren D10/D1 erlazioak alderatzen du, goiko dezilan (soldata handienak) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko dezilan (soldata txikiak) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2024an 50,7ko ratio batek esan nahi du, D10 dezilaren (soldata handieneko populazioaren %10a) mediana, D1 dezilaren (soldata txikiaren populazioaren %10a) mediana baino 50,7 aldiz handiagoa dela.
- Medianaren S80/S20 erlazioak alderatzen du, goiko bi deziletan (D9+D10) dauden pertsonen soldataren mediana, beheko bi deziletan (D1+D2) dauden pertsonen soldataren medianarekin. 2024an 13,7ko ratio batek esan nahi du, goiko dezilen (soldata handieneko populazioaren %20a) mediana, beheko dezilen (soldata txikiaren populazioaren %20a) mediana baino 13,7 aldiz handiagoa dela.

2019-2024 epealdian ratio guztiak modu garrantzitsuan jaitسي ziren. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa %3,2 jaitسي zen eta medianarena %3,7. S80/S20 erlazioan, jaitسيiera %6,9 eta %5,2 izan zen, hurrenez hurren.


Aldiz, 2015-2024 epealdiaren konparaketan soldaten ratioak eta medianarenak gehiago jaisten dira. D10/D1 erlazioaren kasuan, soldaten ratioa %20,4 jaisten da eta medianarena %26,0 jaisten da. S80/S20 erlazioan, soldaten jaitسيiera %16,2 da eta medianaren jaitسيiera %20,7.

3.1. Soldatak sexuaren arabera

Jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2024. urteko 343.281 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 11.142ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,2ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Soldatak jasotzen dituzten guztietatik, %47,4 emakumezkoak dira, eta beste %52,6 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %41,5 jasotzen dute, eta gizonezkoek %58,5.

Grafikoa 4 – Soldaten banaketa sexuaren arabera -2024



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezko soldatapekoen batez bestekoa 27.642 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 35.200 eurokoa.

Grafikoa 5 – Soldaten batez bestekoa sexuaren arabera -2024



Azkeneko hamar urteetan emakumezkoen parte hartzea lan merkatuan nabarmen handitu da: 2015ean 135.184 emakume ziren laneko soldatak jasotzen zituztenak; 2024an kopuru hori 157.558ra igo da, hau da, %16,6 gehiago. Gizonezkoak, berriz, 156.927tik 174.581era pasa dira (+%11,2). Urtez urteko bariazioak aztertuz gero, soldatak jasotzen dituzten emakumezko eta gizonezko kopurua 2020an bakarrik jaitsi zen. 2024an emakumezkoen kopurua %2,1 igo zen, eta gizonezkoen kopuruak %1,7 egin zuen gora.

Taula 9. Soldatapekoen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	135.184		156.927	
2016	139.823	3,4	161.284	2,8
2017	143.916	2,9	165.180	2,4
2018	146.122	1,5	169.621	2,7
2019	149.143	2,1	171.182	0,9
2020	145.367	-2,5	166.362	-2,8
2021	146.122	0,5	169.621	2,0
2022	152.922	4,7	171.361	1,0
2023	154.286	0,9	171.663	0,2
2024	157.558	2,1	174.581	1,7
2015/2024		16,6		11,2

Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen pisua soldatapeko guztien artean 1,2 puntu igo da azken hamar urteetan: 2015ean soldatak jasotzen zituzten pertsona guztien %46,3 zen emakumezkoa, eta 2024an, lehen aipatutako %47,4ra iritsi dira. Ondorioz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %53,7 izatetik %52,6 izatera pasa dira.

Kopuruaren bilakaera horrek isla izan du zenbatekoetan. Horrela, 2015ean emakumezkoek jasotako soldatak 2.841 milioi euro izan ziren bitartean, 2024an 4.355 milioi euro izan dira; hau da, %53,3 gehiago. Gainera, taulan ikusten denez, 2020 urtean izan ezik, beste guztietan bariazio positiboak izan dituzte.

Taula 10. Soldaten bilakaera sexuaren arabera (milioi eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	2.841		4.406	
2016	2.939	3,4	4.547	3,2
2017	3.023	2,9	4.634	1,9
2018	3.185	5,4	4.961	7,1
2019	3.372	5,9	5.104	2,9
2020	3.285	-2,6	4.904	-3,9
2021	3.495	6,4	5.137	4,8
2022	3.824	9,4	5.506	7,2
2023	4.057	6,1	5.814	5,6
2024	4.355	7,4	6.145	5,7
2015/2024		53,3		39,5

Gizonezkoak jasotako soldatak %39,5 igo dira hamar urte hauetan: 4.406 milioi eurotik 6.145 milioi eurora. Bilakaera ezberdin horren ondorioz, emakumezkoen soldaten pisua 2,3 puntu igo da hamar urte hauetan: 2015eko 39,2tik lehen aipatutako %41,5era. Eta gizonezkoena %60,8tik %58,5era pasa da.

Taula 11. Batez besteko soldaten bilakaera sexuaren arabera (eurotan)


	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	21.018		28.076	
2016	21.019	0,0	28.194	0,4
2017	21.007	-0,1	28.052	-0,5
2018	21.798	3,8	29.247	4,3
2019	22.611	3,7	29.815	1,9
2020	22.601	0,0	29.476	-1,1
2021	23.916	5,8	30.284	2,7
2022	25.006	4,6	32.131	6,1
2023	26.292	5,1	33.871	5,4
2024	27.642	5,1	35.200	3,9
2015/2024		31,5		25,4

2015etik 2024ra emakumezko soldatapekoen batez bestekoa %31,5 igo da: 21.018 eurotik 27.642 eurora. Gizonezko soldatapekoena, berriz, %25,4 igo da: 28.076 eurotik 35.200 eurora.

Sexuen arteko batez bestekoaren arrailak gora-behera handiak izan ditu azken hamar urte hauetan:

- 2015. urtean 7.058 eurokoa zen. Horrek adierazten du emakumezkoen soldata gizonezkoena baino %25,1 txikiagoa zela.
- 2015–2024 epealdian, arrailak gora eta behera egin du, azken urtean behera egiteko. Azken urte honetan 7.558 eurokoa da. Nahiz eta balio absolutuetan alde handia ez egon 2015eko zenbatekoarekin (7.058 euro), balio erlatiboetan aztertuta arraila 3,7 puntu jaitsi da: 2015eko %25,1etik 2024ko %21,5era.

Grafikoa 6– Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak eta %)



3.2. Soldatak nazionalitatearen arabera

Nazionalitatea definitzen da herritar bat eta Estatu baten arteko lege harreman berezi gisa; horrela, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Sailkapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X, Y edo Z atzerritarrentzat, eta beste guztiak espainiarrentzat.

Horrela, Gipuzkoan bizi diren soldata jasotzailearen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2024an %90,5 dira bertakoak eta beste %9,5 atzerritarak.

Taula 12. Soldatapekoen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2015	289.043		15.792	
2016	293.351	1,5	17.460	10,6
2017	299.545	2,1	19.647	12,5
2018	301.822	0,8	22.599	15,0
2019	305.606	1,3	24.720	9,4
2020	295.893	-3,2	23.623	-4,4
2021	299.522	1,2	24.921	5,5
2022	305.929	2,1	28.055	12,6
2023	304.719	-0,4	30.451	8,5
2024	310.664	2,0	32.617	7,1
2015/2024		7,5		106,5

Dena den azken hamar urteetan atzerritarren partaidetza era garrantzitsuan handitu da: 2015ean 15.792 pertsona ziren atzerritarrak, eta 2024an 32.617 dira; hau da, %106,5 gehiago. 2015-2024 epealdian soilik 2020an behera egin du pertsona atzerritarren kopuruak, %4,4. 2024an, pertsona atzerritarren kopuruak %7,1 gora egin du eta epealdiko kopuru handiena jaso du.

Atzerritarrek jasotako soldatak ere nabarmen handitu dira azken hamar urteetan: 2015ean 205 milioi euro jaso zituzten, eta 2024an, berriz, 603 milioi euro (+%194,8). 2015-2024 epealdiak goranzko joera izan du eta 2024an epealdiko kopuru handiena jaso du. 2020an %8,2 behera egin zuen.

**Taula 13. Soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera
(milioi eurotan)**

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2015	7.200		205	
2016	7.388	2,6	222	8,4
2017	7.540	2,0	251	13,0
2018	7.932	5,2	306	21,9
2019	8.218	3,6	361	18,1
2020	7.943	-3,3	332	-8,2
2021	8.352	5,2	380	14,7
2022	8.996	7,7	458	20,4
2023	9.441	4,9	535	16,7
2024	10.012	6,0	603	12,8
2015/2024		39,1		194,8


Dena den, atzerritarrek izan duten bilakaera ikusgarri horrek ez du eragin garbirik jasotako batez besteko soldatan: aztertutako hamar urteetan %42,7 igo da (12.962 eurotik 18.499 eurora), bertako batez besteko soldata %29,4 igo den bitartean (24.910 eurotik 32.226 eurora).

Bi taldeen arteko arraila 2024. urtean 13.728 eurokoa izan da; horrek esan nahi du atzerritarren soldata bertakoena baino %42,6 txikiagoa dela. Arraila hori azken hamar urteetan gora eta behera ibili da, eta azkeneko urtean gora egin du (azken urteetan portzentajearen jaitsi da).

Taula 14. Batez besteko soldaten bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2015	24.910		12.962	
2016	25.186	1,1	12.710	-1,9
2017	25.170	-0,1	12.766	0,4
2018	26.280	4,4	13.531	6,0
2019	26.892	2,3	14.612	8,0
2020	26.845	-0,2	14.033	-4,0
2021	27.886	3,9	15.261	8,7
2022	29.406	5,5	16.328	7,0
2023	30.982	5,4	17.563	7,6
2024	32.226	4,0	18.499	5,3
2015/2024		29,4		42,7

Grafikoa 7- Nazionalitateen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera (euroak eta %)



3.3. Soldatak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2024. urteko 343.281 soldatapekotik ez dugu ezagutzen 12.170ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %3,5eko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Normala den bezala, jasotzaile kopuruaren gehiengoak (%69,9) 36-65 urte tartean kokatzen da. Oso gutxi dira 18 urtetik beherakoak (%0,3), eta 19-25 tartean daudenak kopuru osoaren %9,8 dira (32.431 pertsona). 26 eta 35 urte bitartean 57.632 soldatapeko daude (guztien %17,4); eta 65 urtetik gora 8.618 pertsona daude (%2,6).

Taula 15. Soldatak adin tarteen arabera - 2024

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<18	1.144	0,3	4.999.066	0,0	4.370
19-25	32.431	9,8	343.656.304	3,3	10.597
26-35	57.632	17,4	1.606.435.850	15,3	27.874
36-45	68.309	20,6	2.267.884.044	21,6	33.200
46-55	94.220	28,5	3.529.912.530	33,7	37.465
56-65	68.757	20,8	2.540.636.859	24,2	36.951
> 65	8.618	2,6	188.339.783	1,8	21.854
Guztira	331.111	100,00	10.481.864.437	100,0	31.657

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: %79,6a metatzen dute 36 eta 65 urte bitartekoak; gazteenak (35 urtetik beherakoak) soldata osoen %18,6 jasotzen dute, eta zaharrenak (65 urtetik gorakoak) %1,8a.

Dena den, adierazgarria da nola handitzen den batez besteko soldata adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, zenbatekorik altuena 46-55 urteko soldatapekoak lortzen dute: 37.465 euro.

Tarteen arabera bi salto esanguratsu ikusten dira: 19-25 tartetik 26-35 tartera batez bestekoa 17.277 eurotan handitzen da (10.597 eurotik 27.874 eurora); eta 56-65 tartetik 65 urte baino gehiagoko tartera batez bestekoa 15.097 eurotan jaisten da (36.951 eurotik 21.854 eurora).

3.4. Soldatak LGSaren tarteen arabera

Jasotako soldata tartetean banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2024. urtean 15.876 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, hiru tarte nabarmentzen dira:

- LGSren 1,5 eta 2 arteko soldata jasotzaile guztien %16,2k jasotzen dute (55.508 pertsona).
- LGSren 0 eta 0,5 arteko soldata jasotzaile guztien %15,7k jasotzen dute (53.752 pertsona).
- LGSren 1 eta 1,5 arteko soldata jasotzaile guztien %15,1ak jasotzen dute (51.717 pertsona).

Jasotzaile guztien erdiak baino gehiagok (%58,2) LGSren 2 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 31.752 euro baino gutxiago.

Taula 16. Soldatak LGSren tarteen arabera – 2024

Errenta tarte (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	53.752	15,7	169.166.771	1,6	3.147
0,5 - 1	38.292	11,2	460.930.596	4,3	12.037
1 - 1,5	51.717	15,1	1.033.347.388	9,7	19.981
1,5 - 2	55.508	16,2	1.540.967.751	14,5	27.761
2 - 2,5	47.369	13,8	1.685.476.599	15,9	35.582
2,5 - 3	36.543	10,6	1.589.269.621	15,0	43.490
3 - 3,5	25.210	7,3	1.289.699.666	12,1	51.158
3,5 - 4	13.178	3,8	778.499.117	7,3	59.076
4 - 4,5	7.065	2,1	473.530.672	4,5	67.025
4,5 - 5	4.221	1,2	317.123.817	3,0	75.130
5 - 7,5	7.850	2,3	731.918.642	6,9	93.238
7,5 - 10	1.502	0,4	202.899.404	1,9	135.086
> 10	1.074	0,3	342.079.402	3,2	318.510
Guztira	343.281	100,00	10.614.909.445	100,00	30.922

Zenbatekoak eurotan

(*) 2024an Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren balio 15.876 eurokoa da

Soldatetan erdiko mailatan metatzen da zenbatekorik gehiena, LGSren 1,5 eta 3,5 bitartean; eta horien artean aipatzekoa da LGS 2 eta 2,5 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %15,9 metatzen dutela, kopuruan %13,8 direnean.

3.5. Soldatak ordaintzailearen ikuspegitik

Txostenaren sarreran aipatu dugun bezala, soldaten analisia bi ikuspegitik egiten da:

- Alde batetik, soldata jasotzen duen pertsonaren bizilekuan oinarritutakoa; orain arte aztertu ditugu Gipuzkoan bizi diren pertsonen datuak, nahiz eta horiek Gipuzkoatik kanpo lan egin.
- Beste alde batetik, puntu honetan aztertuko duguna da Gipuzkoan lan-zentroa duten ordaintzaileak ordaindutako soldatak, nahiz eta jasotzailea Gipuzkoatik kanpo helbideratua egon.

3.5.1. Izaera juridikoaren arabera

2024an 26.695 soldata ordaintzaile daude Gipuzkoan. Gehiengo nagusia sozietateak osatzen dute (%61,9) eta horien artean erantzukizun mugatutako sozietateak nabarmentzen dira (ordaintzaile guztien erdia, %51,9). Bigarren talde nagusia pertsona fisikoak dira (%25,9).

Jasotzaileei dagokionez, %40,9k erantzukizun mugatutako sozietateetan lan egiteagatik jasotzen dute soldata; %20,1ek sozietate anonimoetan egiteagatik; administrazio publikoetan jasotzaile guztien %14,5ek egin du lan; eta kooperatibetan %10,4k.

Taula 17. Soldatak izaera juridikoaren arabera – 2024

Izaera juridikoa	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Enpresa pertsonalak	8.217	30,8	20.459	6,0	316.080.833	3,0	15.449
- Pertsona fisikoak	6.924	25,9	16.127	4,7	244.258.565	2,4	15.146
- Errenta egozpen erregimenekoak	1.293	4,8	4.332	1,3	71.822.267	0,7	16.578
Sozietateak	16.532	61,9	249.156	72,5	7.502.061.517	72,3	30.110
- Sozietate anonimoak	1.582	5,9	69.072	20,1	2.453.360.766	23,6	35.519
- Erantzukizun mugatutako sozietateak	13.847	51,9	140.517	40,9	3.824.589.281	36,8	27.218
- Kooperatibak	852	3,2	35.868	10,4	1.126.652.959	10,9	31.411
- Bestelakoak	251	0,9	3.700	1,1	97.458.511	0,9	26.338
Administrazio publikoak	188	0,7	49.842	14,5	1.928.655.861	18,6	38.695
Irabazi asmorik gabeko entitateak	1.758	6,6	24.047	7,0	635.296.161	6,1	26.419
Guztira	26.695	100,0	343.505	100,0	10.382.094.371	100,0	30.224

Zenbatekoak eurotan

Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte, guztiaren %36,8; sozietate anonimoak ere portzentaje



handia metatzen dute (%23,6); administrazio publikoek soldaten %18,6 ordaintzen dituzte; eta kooperatibak %10,9.

Soldataren batez besteko handiena administrazio publikoetan lan egiten dutenak jasotzen dute: 38.695 euro. Sozietate anonimoetako langileen batez bestekoa 35.519 eurotako da, kooperatibetakoena 31.411 euro eta erantzukizun mugatutako sozietateena 27.218 euro. Zenbatekorik txikiak enpresa pertsonaletan lan egiten dutenena da: 15.449 euro.

Beraz, eta laburtuz:

- Ordaintzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateak dira.
- Jasotzaile gehienak erantzukizun mugatutako sozietateetan egiten dute lan.
- Soldaten zenbatekorik gehiena erantzukizun mugatutako sozietateak ordaintzen dituzte.
- Batez besteko soldatarik handienak administrazio publikoetako langileak jasotzen dituzte.

Ondorengo tauletan azken hamabi urteetan 5 talde nagusiek izan duten bilakaera aztertzen da.

Taula 18. Jasotzaileen bilakaera izaera juridikoaren arabera

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2015	23.519		72.192		107.131		31.441		42.140	
2016	23.622	0,4	70.293	-2,6	111.384	4,0	31.736	0,9	44.183	4,8
2017	23.727	0,4	72.352	2,9	116.427	4,5	32.899	3,7	44.901	1,6
2018	23.810	0,4	73.196	1,2	120.491	3,5	34.155	3,8	42.907	-4,4
2019	23.434	-1,6	72.479	-1,0	124.932	3,7	34.869	2,1	44.692	4,2
2020	21.298	-9,1	68.594	-5,4	120.957	-3,2	34.663	-0,6	45.167	1,1
2021	21.012	-1,3	68.932	0,5	126.377	4,5	34.796	0,4	46.361	2,6
2022	21.390	1,8	67.946	-1,4	134.276	6,2	35.001	0,6	47.326	2,1
2023	20.961	-2,0	68.776	1,2	136.153	1,4	34.714	-0,8	47.723	0,8
2024	20.459	-2,4	69.072	0,4	140.517	3,2	35.868	3,3	49.842	4,4
2015/2024	-3.060	-13,0	-3.120	-4,3	33.386	31,2	4.426	14,1	7.702	18,3

Langile kopuruari dagokionez:

- Enpresa pertsonalak langileak galdu ditu. 2015. urteko 23.519 langiletik 20.459 langilera pasa da hamar urteetan (-%13,0).
- Sozietate anonimoak izan dira langile gehien galdu dutenak. 2015etik aurrera galera nabarmenak dituzte, eta aztertutako hamar urteko epealdian langile kopurua %4,3 jaitsi da (3.120 jasotzaile gutxiago).
- Erantzukizun mugatutako sozietateak dira bilakaera hobea izan dutenak. Hamar urteko epealdian langile kopurua 33.386 pertsonetan egin zuen gora (+%31,2) eta soilik 2020. urtean %3,2ko beherakada eman zen (3.975 pertsona gutxiago).
- Kooperatibetan lan egiten duten pertsona kopurua %14,1 igo da azken hamar urteetan. 2023ko eta 2020ko (-%0,8 eta -%0,6) beherakadak izan ezik, beste urte guztietan igoerak eman dira, eta igoerarik handiena 2018n eman zen (+%3,8). 2024an %3,3 egiten du gora.
- 2015etik 2024ra administrazio publikoetako langile kopurua %18,3 handitu da. Dena den, 2018 urtean beherakada eman da, -%4,4. 2024an %4,4 egin du gora.

Taula 19. Soldaten bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2015	264.056.098		2.017.382.192		2.273.048.843		769.928.901		1.383.297.511	
2016	268.437.371	1,7	2.006.884.758	-0,5	2.392.587.031	5,3	793.663.070	3,1	1.420.018.789	2,7
2017	277.097.297	3,2	2.014.444.066	0,4	2.520.924.144	5,4	799.438.012	0,7	1.446.899.205	1,9
2018	287.833.852	3,9	2.122.710.322	5,4	2.704.208.341	7,3	867.681.952	8,5	1.469.748.223	1,6
2019	290.324.135	0,9	2.149.461.508	1,3	2.872.730.600	6,2	897.478.139	3,4	1.568.351.203	6,7
2020	235.889.933	-18,7	2.080.006.061	-3,2	2.718.727.636	-5,4	874.221.263	-2,6	1.600.532.895	2,1
2021	262.126.170	11,1	2.153.049.820	3,5	2.919.196.355	7,4	913.261.889	4,5	1.664.728.168	4,0
2022	293.807.622	12,1	2.222.851.857	3,2	3.298.229.959	13,0	971.808.199	6,4	1.803.811.475	8,4
2023	310.526.611	5,7	2.328.275.502	4,7	3.571.030.948	8,3	1.038.895.184	6,9	1.822.319.288	1,0
2024	316.080.833	1,8	2.453.360.766	5,4	3.824.589.281	7,1	1.126.652.959	8,4	1.928.655.861	5,8
2015/2024	52.024.735	19,7	435.978.574	21,6	1.551.540.439	68,3	356.724.058	46,3	545.358.351	39,4

Azken hamar urteetan ordaindutako soldatei dagokionez, aztertutako talde guztiak bilakaera positiboa erakusten dute:



- Enpresa pertsonalak %19,7ko igoera izan dute. Soldatak, soilik 2020an egin zuten behera, -%18,7. Gora egiten dute 2021ean, %11,1, 2022an, %12,1, 2023an, %5,7 eta 2024an, %1,8.
- Sozietate anonimoetan, guztizko soldatek behera egin dute 2016an, gora egin dute 2017tik 2019ra, behera 2020an, eta gora, berriz, 2021ean, 2022an, 2023an eta 2024an. Ordaindutako guztizko soldatak %21,6 igo dira 10 urte horietan.
- Erantzukizun mugatuko sozietateek ordaindutako guztizko soldatak 2020an soilik jaitsi dira, -%5,4. Gainerako urteetan, hazkundearen batez besteko ehunekoa %7,5 izan da. Guztira, soldatak %68,3 igo dira azken hamar urteetan.
- Kooperatibek ordaindutako guztizko soldaten bilakaera aurreko taldeen antzekoa da: 2020an %2,6 jaitsi dira, eta gainerako urteetan batez besteko igoera-ehunekoa %5,3 da. Guztira, soldatak %46,3 igo dira 10 urteko aldian.
- Administrazio publikoetan soldatak epealdiko urte guztietan gora egin dute eta 2015-2024 epealdian ordaindutako soldata osoak %39,4 handitu dira. 2020an igoera izan duen talde bakarra da, +%2,1.

Azken hamar urteetan soldaten batez bestekoak izan duen portaerari dagokionez, badira alderdi aipagarri batzuk. Igoerarik handiena enpresa pertsonaletako langileen soldatetan gertatu da: +%37,6. Ondoren, erantzukizun mugatuko sozietateetan eta kooperatibetan lan egiten dutenak daude (+%28,3), eta sozietate anonimoetako langileak datoz atzetik (+%27,1). Azkenik, administrazio publikoen batez besteko soldata %17,9 igo da.

Aldi horretan bertan Gipuzkoako Kontsumoko Prezioen Indizea %24,4 igo zela kontuan hartuta, alde argiak ikusten dira erakunde ordaintzaile moten artean. Horrela, aztertutako hamar urteetan, erosteko ahalmena galdu dute soilik administrazio publikoetako enplegatuek (6,5 puntu); enpresa pertsonaletan lan egiten dutenek (13,2 puntu), erantzukizun mugatuko sozietateek (3,9 puntu), kooperatiba-sozietateek (3,92 puntu) eta sozietate anonimoek (2,7 puntu), berriz, erosteko ahalmena irabazi dute.

Taula 20. Soldaten batez bestekoaren bilakaera izaera juridikoaren arabera (eurotan)

Urtea	Enpresa pertsonalak	Bar. %	Sozietate anonimoak	Bar. %	Erantzukizun mugatutako sozietateak	Bar. %	Kooperatibak	Bar. %	Administrazio publikoak	Bar. %
2015	11.228		27.945		21.218		24.488		32.826	
2016	11.364	1,2	28.550	2,2	21.480	1,2	25.008	2,1	32.140	-2,1
2017	11.679	2,8	27.842	-2,5	21.652	0,8	24.300	-2,8	32.224	0,3
2018	12.089	3,5	29.000	4,2	22.443	3,7	25.404	4,5	34.255	6,3
2019	12.389	2,5	29.656	2,3	22.994	2,5	25.739	1,3	35.092	2,4
2020	11.076	-10,6	30.323	2,2	22.477	-2,3	25.221	-2,0	35.436	1,0
2021	12.475	12,6	31.234	3,0	23.099	2,8	26.246	4,1	35.908	1,3
2022	13.735	10,1	32.715	4,7	24.563	6,3	27.765	5,8	38.114	6,1
2023	14.815	7,9	33.853	3,5	26.228	6,8	29.927	7,8	38.185	0,2
2024	15.449	4,3	35.519	4,9	27.218	3,8	31.411	5,0	38.695	1,3
2015/2024	4.222	37,6	7.574	27,1	6.000	28,3	6.923	28,3	5.869	17,9

3.5.2. Langile kopuruaren arabera

Soldaten ordaintzaileak dituen langile kopuruaren arabera, gehiengo nagusiak (%59,1) langile 1 eta 3 bitartean ditu. Hurrengo tartean, 4-9 langile, ordaintzaile guztien %21,8a, eta 10-19 langile bitartean %9,4. Beraz, Gipuzkoako ordaintzaile guztien %90,4k 20 langile baino gutxiago ditu.

Jasotzaile kopuruaren banaketa askoz orekatuagoa da. Dena den, kopururik handiena 500 langile baino gehiago dituzten 60 ordaintzaileetan metatzen da: 87.566 (%25,5).

Batez beste, Gipuzkoako ordaintzaile bakoitzak 12,9 langile ditu.

Ordaindutako soldatek langile kopuruaren antzeko banaketa dute. Hemen ere 500 langiletik gorako ordaintzaileak nagusitzen dira: soldata guztien %29,0 metatzen dute.

Taula 21. Soldatak langile kopuruaren arabera – 2024

Tamaina (langile kopurua)	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
1-3	15.776	59,1	25.193	7,3	605.860.126	5,8	24.049
4-9	5.831	21,8	35.998	10,5	944.210.231	9,1	26.230
10-19	2.514	9,4	35.074	10,2	937.863.291	9,0	26.739
20-49	1.656	6,2	50.442	14,7	1.466.743.439	14,1	29.078
50-99	477	1,8	33.124	9,6	990.745.920	9,5	29.910
100 - 249	293	1,1	45.842	13,3	1.431.858.999	13,8	31.235
250- 499	88	0,3	30.266	8,8	989.391.771	9,5	32.690
>=500	60	0,2	87.566	25,5	3.015.420.594	29,0	34.436
Guztira	26.695	100,0	343.505	100,0	10.382.094.371	100,0	30.224

Zenbatekoak eurotan

Batez bestekoari dagokionez, ordaintzailearen tamaina zenbat eta handiago izan, orduan eta zenbateko altuagoa. 500 langiletik gorako ordaintzaileak soldata moduan 34.436 euro ordaintzen dituzte batez beste, eta 1-3 langile bitartean dituztenek, berriz, 24.049 euro ordaintzen dute.

3.5.3. Sektoreen arabera

Ordaintzaileei buruzko informazioa eskuratzekoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, jarduera sektorea. Horrela, 2024. urteko 26.695 ordaintzailetik ez dugu ezagutzen 1.337ren jarduera sektorea; dena den, %5,0ko hutsune hori txikiagoa da jasotzaile kopurua aztertzerakoan (%2,4) eta ordaindutako soldatetan (%1,8). Beraz, hutsune horiek ez diote adierazgarritasunik kentzen lortutako emaitzei.

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean dago Gipuzkoako ordaintzaile kopururik handiena: 8.285 (%32,7). Bigarren lekuan Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonalen sektorea dago (%19,7), eta ondoren Enpresei eginiko zerbitzuak (%16,0). Hirurak ere zerbitzuei lotutako sektoreak dira. Industria sektorean, berriz, 2.859 ordaintzaile daude (guztien %11,3), eta eraikuntzan 3.111 (%12,3).

Baina banaketa hori aldatu egiten da soldata jasotzaile kopurua aztertzen badugu; izan ere, gizarte zerbitzuen sektorean dago kopururik handiena: 86.014 soldatapeko, hau da, guztien %25,7. Industrian 71.063 pertsonak (%21,2) jasotzen dute soldata, eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektorean 66.980 pertsonak (%20,0).

Taula 22. Soldatak sektoreen arabera – 2024

Sektoreak	Ordaintzaile kopurua	%	Jasotzaile kopurua	%	Soldatak	%	Batez bestekoa
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	53	0,2	225	0,1	4.715.889	0,0	20.915
Energia eta ura	88	0,3	2.764	0,8	99.631.018	1,0	36.045
Industria	2.859	11,3	71.063	21,2	2.685.858.763	26,3	37.795
Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	3.111	12,3	17.813	5,3	571.521.033	5,6	32.084
Merkataritza, garraioak eta konponketak	8.285	32,7	66.980	20,0	1.766.893.182	17,3	26.380
Komunikazioak eta informazioa	60	0,2	193	0,1	5.074.600	0,0	26.288
Banka eta aseguruak	328	1,3	4.390	1,3	214.663.039	2,1	48.895
Enpresei eginiko zerbitzuak	4.051	16,0	45.243	13,5	1.177.677.434	11,6	26.030
Gizarte zerbitzuak	1.540	6,1	86.014	25,7	2.919.962.271	28,6	33.947
Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	4.983	19,7	40.552	12,1	749.264.555	7,3	18.477
Guztira	25.358	100,0	335.238	100,0	10.195.261.784	100,0	30.412

Zenbatekoak eurotan

Soldata zenbatekorik handiena gizarte zerbitzuetako jarduerak ordaintzen du (2.920 milioi euro; %28,6); Industria sektoreak egiten dituztenek 2.686 milioi euro ordaintzen dute (guztiaren %26,3); eta Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko ordaintzaileak 1.767 milioi euro (%17,3).

Batez bestekorik handiena banka eta aseguru sektore ordaintzaileak ordaintzen dute: 48.895 euro bertan lan egiten duen 4.390 pertsonako. Ondoren industria sektorea dator: 37.795 euro. Energia eta ura sektoreko ordaintzaileak 36.045 euro ordaintzen dute batez beste; baina hor, 2.764 pertsonak bakarrik egiten dute lan.

Gipuzkoan lan-zentroa duten Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sektoreko enpresek dituzten jasotzaile kopurua %45,3 igo da 2015etik. Dena den, esan beharra dago balio absolutuetan oso soldatapeko gutxi direla sektore horretan lan egiten dutenak.

Azken hamar urteetan Industria sektoreko ordaintzaileak 7.471 soldatapeko irabazi dituzte; 2015ean 63.592 pertsonak egiten zuten lan, eta 2024an 71.063 pertsonak. Taulan ikusten denez, beherakada esanguratsuenak epealdiaren hasieran eta 2020an eman dira. 2024an %1,4 igo da (967 pertsona).

Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioan langile kopururik altuena 2023an lortu da: 17.854 langile. 2023an, eraikuntza eta jarduera inmobiliarioko

sektoreak %0,5eko igoera izan du, 2022an %1,3ko igoera izan ondoren. Jaitsiera bakarrak, 2020an (-%1,5) eta 2024an (-%0,2) eman dira. 2015etik igoera %11,6koa izan da.

Taula 23. Jasotzaileen bilakaera sektoreen arabera

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza		Energia eta ura		Industria		Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa		Merkataritza, garraioak eta konponketak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2015	155		2.926		63.592		15.955		59.219	
2016	145	-6,4	2.779	-5,0	64.169	0,9	16.384	2,7	60.790	2,7
2017	162	11,7	2.973	7,0	66.144	3,1	16.391	0,0	62.745	3,2
2018	193	18,7	2.913	-2,0	68.072	2,9	16.943	3,4	63.869	1,8
2019	219	13,6	2.505	-14,0	68.486	0,6	17.335	2,3	66.232	3,7
2020	208	-5,0	2.448	-2,3	67.058	-2,1	17.072	-1,5	64.163	-3,1
2021	221	6,1	2.648	8,2	68.975	2,9	17.540	2,7	64.750	0,9
2022	211	-4,6	2.680	1,2	69.843	1,3	17.767	1,3	65.591	1,3
2023	229	8,7	2.725	1,7	70.096	0,4	17.854	0,5	66.304	1,1
2024	225	-1,5	2.764	1,4	71.063	1,4	17.813	-0,2	66.980	1,0
2015/2024	70	45,3	-162	-5,5	7.471	11,7	1.859	11,6	7.760	13,1

Taula 23. jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa		Banka eta aseguruak		Enpresei eginiko zerbitzuak		Gizarte zerbitzuak		Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	
		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %		Bar. %
2015	158		6.543		37.216		69.162		32.404	
2016	175	11,3	5.112	-21,9	36.581	-1,7	71.092	2,8	34.423	6,2
2017	190	8,2	5.224	2,2	37.880	3,6	72.999	2,7	35.312	2,6
2018	168	-11,7	5.059	-3,2	38.843	2,5	71.605	-1,9	36.103	2,2
2019	161	-3,9	4.912	-2,9	39.436	1,5	74.843	4,5	35.609	-1,4
2020	140	-12,8	4.675	-4,8	37.637	-4,6	75.650	1,1	31.005	-12,9
2021	137	-2,7	4.509	-3,6	40.234	6,9	78.778	4,1	32.280	4,1
2022	135	-1,2	4.435	-1,6	44.599	10,9	80.127	1,7	35.973	11,4
2023	162	19,7	4.351	-1,9	43.574	-2,3	81.507	1,7	38.647	7,4
2024	193	19,4	4.390	0,9	45.243	3,8	86.014	5,5	40.552	4,9
2015/2024	35	22,2	-2.153	-32,9	8.027	21,6	16.852	24,4	8.148	25,1

Merkataritza, garraioak eta konponketak sektoreko soldatapeko kopurua %13,1 igo da 2015eko datuekin alderatuta. Soldatapeko kopuruak soilik 2020an behera egin zuen eta 2024an %1,0 igo da.

Gipuzkoako Banka eta aseguru sektorean 4.390 jasotzaile daude 2024. urtean, orain dela 10 urte baino %32,9 gutxiago.

Enpresei eginiko zerbitzuetako soldatapeko kopurua hamar urte hauetan, 2015eko 37.216tik 2024ko 45.243ra pasa da. 2016an %1,7ko



jaitziera ematen da, baina 2017an %1,7 igo da. 2018an %2,5 gora egiten du eta 2019an berriro gora egiten du (+%1,5). 2020an %4,6 behera egiten du. 2021ean %6,9 eta 2022an %10,9, egiten du gora. 2023an %2,3 behera egiten du, eta 2024an berriro gora egiten du, %3,8.

Balio absolutuetan jasotzaile gehien irabazi duen sektorea Gizarte zerbitzuetakoa da: 2015ean baino 16.852 soldatapeko gehiago (+%24,4).

Eta azkenik, Aisialdia eta beste zerbitzu pertsonaletako sektoreak soldatapeko kopuru %25,1eko hazkundera izan du 2015 eta 2024 urteen artean. Azken hamar urteetan, igoerak izan ditu lehenengo urteetan eta jaitziera garrantzitsua 2019an eta 2020an (2020an eman da jaitziera handiena, 4.604 soldatapeko gutxiago, %12,9 gutxiago). 2021ean joera aldatzen da eta %4,1 egiten du gora. 2022an %11,4 hazi da, 2023an %7,4 egiten du gora eta 2024an %4,9.

Zenbatekoei dagokionez berriz, komunikazioak eta informazioa (-%7,6) eta banka eta aseguruak (-%13,1), 2024an ordaindutako soldata osoa 2015ekoa baino txikiago da.

Igoerarik handiena portzentualki energia eta uraren sektorean eman da: +%115,2; eta igoerarik txikiena industriaren sektorean (+%41,6).

Taula 24. Soldata osoen bilakaera sektoreen arabera (eurotan)

	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	Bar. %	Energia eta ura	Bar. %	Industria	Bar. %	Eraikuntza eta jarduera inmobiliarioa	Bar. %	Merkataritza, garraioak eta konponketak	Bar. %
2015	2.733.262		86.502.323		1.897.120.800		365.450.448		1.234.099.595	
2016	2.530.119	-7,4	83.350.568	-3,6	1.935.595.906	2,0	373.554.251	2,2	1.279.825.336	3,7
2017	2.976.499	17,6	85.759.630	2,9	1.955.254.914	1,0	383.684.697	2,7	1.326.209.987	3,6
2018	3.767.459	26,6	87.668.231	2,2	2.113.739.272	8,1	411.010.064	7,1	1.386.382.194	4,5
2019	4.150.087	10,2	78.933.610	-10,0	2.169.482.841	2,6	441.967.569	7,5	1.451.098.322	4,7
2020	4.076.475	-1,8	79.419.514	0,6	2.091.760.324	-3,6	439.005.241	-0,7	1.362.320.529	-6,1
2021	4.343.766	6,56	86.926.139	9,5	2.217.434.934	6,0	469.372.758	6,9	1.455.038.931	6,8
2022	4.370.336	0,61	90.688.221	4,3	2.381.212.290	7,4	504.036.510	7,4	1.570.744.276	8
2023	4.643.106	6,2	95.046.764	4,8	2.519.133.242	5,8	536.260.562	6,4	1.681.015.291	7,0
2024	4.715.889	1,6	95.046.764	0,0	2.685.858.763	6,6	571.521.033	6,6	1.766.893.182	5,1
2015/2024	1.982.627	72,5	99.631.018	115,2	788.737.963	41,6	206.070.585	56,4	532.793.587	43,2



Taula 24. Jarraipena

	Komunikazioak eta informazioa	Bar. %	Banka eta aseguruak	Bar. %	Enpresei eginiko zerbitzuak	Bar. %	Gizarte zerbitzuak	Bar. %	Aisialdi eta beste zerbitzu pertsonalak	Bar. %
2015	5.491.207		247.134.804		738.132.470		1.981.046.464		419.423.928	
2016	5.822.203	6,0	226.880.624	-8,2	754.107.874	2,2	2.019.252.253	1,9	459.752.546	9,6
2017	5.727.932	-1,6	220.602.118	-2,8	768.017.818	1,8	2.073.087.677	2,7	493.658.802	7,4
2018	5.098.541	-11,0	210.150.935	-4,7	821.133.038	6,9	2.120.344.390	2,3	540.114.177	9,4
2019	4.837.984	-5,1	208.440.844	-0,8	870.032.558	6,0	2.263.095.310	6,7	548.103.547	1,5
2020	4.257.198	-12,0	200.328.756	-3,9	849.688.379	-2,3	2.308.336.137	2,0	435.708.179	-20,5
2021	4.405.228	3,5	193.977.608	-3,2	933.233.973	9,8	2.443.229.747	5,8	492.576.841	13,1
2022	4.351.600	-1,2	193.510.090	-0,2	1.034.071.025	10,8	2.633.770.067	7,8	595.717.482	20,9
2023	4.565.856	4,9	201.845.326	4,3	1.092.637.246	5,7	2.719.563.356	3,3	691.396.641	16,1
2024	5.074.600	11,1	214.663.039	6,4	1.177.677.434	7,8	2.919.962.271	7,4	749.264.555	8,4
2015/2024	-416.607	-7,6	-32.471.765	-13,1	439.544.964	59,5	938.915.807	47,4	329.840.627	78,6



4. PENTSIOAK

2024. urtean pentsio publikoak 185.304 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %0,7 gehiagok. Jasotako pentsioen zenbateko osoa 4.483 milioi euro izan dira, 2023n baino %5,6 handiagoa. Pertsona bakoitzak jasotako batez besteko pentsioa 24.194 eurokoa izan da.

Taula 25. Pentsioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2015	174.854		2.958.724.879		16.921	
2016	177.019	1,2	3.061.417.945	3,5	17.294	2,2
2017	180.494	2,0	3.166.919.292	3,4	17.546	1,5
2018	182.467	1,1	3.323.809.815	5,0	18.216	3,8
2019	185.078	1,4	3.513.293.661	5,7	18.983	4,2
2020	187.935	1,5	3.610.218.046	2,8	19.210	1,2
2021	188.889	0,5	3.713.117.259	2,9	19.658	2,3
2022	189.264	0,2	3.987.328.920	7,4	21.068	7,2
2023	183.926	-2,8	4.246.115.702	6,5	23.086	9,6
2024	185.304	0,7	4.483.270.351	5,6	24.194	4,8
2015/2024		6,0		51,5		43,0

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan pentsioak jaso dituzten pertsona kopurua %6,0 igo da. Igoera etengabea izan da urtez urte, baina 2023. urtean %2,8 jaitsi da. 2024an %0,4ko igoera eman da.

Jasotako pentsioei dagokionez, %51,5 igo dira 2015. urtetik: 2.959 milioi eurotik 4.483 milioi eurora. Kasu honetan ere, igoerak urtero eman dira etenik gabe. Pertsonako batez besteko pentsioa %43,0 igo da hamar urteko epealdi honetan: 16.921 eurotik 24.194 eurora. Erreferentzia moduan, aipatu daiteke epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %24,4 igo dela.


Datu horiek, pentsio publikoen arloan azken urteetan eman diren aldaketa garrantzitsuen isla garbia dira. Sistemara gehitzen diren pertsona berriek gero eta pentsio altuagoekin egiten dute, izan ere, sistema egin dituzten kotizazioak handiagoak izan dira.

4.1 Pentsioak sexuaren arabera

Soldaten atalean esan den bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitortpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2024. urteko 185.304 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 203ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %0,1eko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.


Pentsiodun kopuruaren banaketa oso orekatua da: %50,1 emakumezkoa da, eta beste %49,9 gizonezkoa. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek pentsio guztien %43,1 jasotzen dute, eta gizonezkoek %56,9.

Grafikoa 8 – Pentsioen banaketa sexuaren arabera -2024



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen batez besteko pentsioa 20.850 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 27.576 eurokoa.

Grafikoa 9 – Pentsioen batez bestekoa sexuaren arabera -2024



Azken hamar urteetan emakumezko nahiz gizonezko pentsiodunen bilakaera oso antzekoa izan da. Emakumezkoak 82.269tik 92.681era pasa dira (+%12,7), eta gizonezkoak 85.490tik 92.420ra (+%8,1).

Taula 26. Pentsiodunen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	82.269		85.490	
2016	83.429	1,4	86.777	1,5
2017	85.837	2,9	88.012	1,4
2018	88.221	2,8	91.293	3,7
2019	89.432	1,4	92.229	1,0
2020	90.672	1,4	93.213	1,1
2021	91.587	1,0	93.535	0,3
2022	91.124	-0,5	91.839	-1,8
2023	91.798	0,7	91.973	0,1
2024	92.681	1,0	92.420	0,5
2015/2024		12,7		8,1

Nahiz eta zenbateko osoaren bilakaeran antzeko joera izan, emakumezkoak jasotako pentsioak zerbait gehiago igo dira aztertutako hamar urteetan: +%73,0 (1.117 milioi eurotik 1.932 milioi eurora). Gizonezkoek jasotako pentsioak 1.754 milioi eurotik 2.549 milioi eurora pasa dira (+%45,3). Horren ondorioz, emakumezkoen pentsioen pisua 4,2 puntu igo da azken hamar urteetan: 2015eko %38,9tik lehen aipatutako %43,1era. Beraz, gizonezkoak alderantzizko bide egin dute: %61,1etik %56,9ra.

Taula 27. Pentsioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	1.116.723.894		1.753.863.201	
2016	1.168.100.503	4,6	1.810.292.017	3,2
2017	1.220.037.874	4,4	1.864.525.686	3,0
2018	1.319.366.427	8,1	1.968.134.408	5,6
2019	1.419.002.003	7,6	2.051.076.217	4,2
2020	1.469.301.021	3,5	2.090.017.038	1,9
2021	1.530.954.264	4,2	2.132.555.301	2,0
2022	1.649.420.906	7,7	2.248.749.915	5,4
2023	1.812.759.254	9,9	2.431.395.267	8,1
2024	1.932.433.865	6,6	2.548.568.629	4,8
2015/2024		73,0		45,3

2015etik 2024ra emakumezkoen batez besteko pentsioa %53,6 igo da: 13.574 eurotik 20.850 eurora. Gizonezkoena, berriz, %34,4 igo da: 20.515 eurotik 27.576 eurora. Lehenago aipatu dugun bezala, epealdi berean Gipuzkoako Kontsumorako Prezioen Indizea %24,4 igo da.


Taula 28. Batez besteko pentsioaren bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	13.574		20.515	
2016	14.001	3,1	20.861	1,7
2017	14.213	1,5	21.185	1,6
2018	14.955	5,2	21.558	1,8
2019	15.867	6,1	22.239	3,2
2020	16.205	2,1	22.422	0,8
2021	16.716	3,2	22.800	1,7
2022	18.101	8,3	24.486	7,4
2023	19.747	9,1	26.436	8,0
2024	20.850	5,6	27.576	4,3
2015/2024		53,6		34,4

Azken hamar urte hauetan sexuen arteko batez bestekoaren arrailak behera egin du balio erlatiboetan (grafikoaren errenkada urdina): 2015. urtean %33,8koa zen eta 2024an %24,4koa da. Horrek adierazten duena da emakumezkoen batez besteko pentsioa gizonezkoena baino %24,4 txikiagoa dela.

Balio absolutuetan ere, txikitu egin da: 2015ean 6.941 euroko aldea zegoen, eta 2024an 6.726 eurokoa da.

Grafikoa 10 – Sexuen arteko batez bestekoaren arrailaren bilakaera





4.2. Pentsioak adinaren arabera

Pentsiodunen sexuarekin gertatzen zitzaien bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2024. urteko 185.304 pentsiodunetatik ez dugu ezagutzen 358ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, %0,2ko hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

55 urtetik beherako pentsiodunen kopurua oso txikia da: guztien %4,1. Gero, adinean aurrera joan ahala kopuruak handitu egiten dira: 56-65 bitartekoak %13,7 dira (25.271 pertsona); 66-75 bitartean 72.399 pentsiodun daude (%39,1); eta gehiengoa azken tartean dago (75 urtetik gorakoa): 79.681 pertsona, hau da, guztien %43,1.

Taula 29. Pentsioak adin tarteen arabera - 2024

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	137	0,1	1.230.001	0,0	8.978
26 - 35	373	0,2	4.276.034	0,1	11.464
36 - 55	7.085	3,8	116.781.223	2,6	16.483
56 - 65	25.271	13,7	582.437.782	13,0	23.048
66 - 75	72.399	39,1	1.981.502.268	44,2	27.369
> 75	79.681	43,1	1.792.738.711	40,0	22.499
Guztira	184.946	100,00	4.478.966.019	100,0	24.218

Zenbatekoak eurotan

Pentsioen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak (55 urtetik beherakoak) pentsio osoen %2,7 jasotzen dute; 56 eta 65 bitartekoak 582 milioi euro (%13,0); 66-75 bitartekoak 1.982 milioi euro (%44,2), eta zaharrenak (75 urtetik gorakoa) %40,0a.

Bestalde, batez besteko pentsiorik handiena 66 eta 75 urte bitartean dutenak jasotzen dute: 27.499 euro. Antzeko zenbatekoa jasotzen dute 56-65 bitartekoak (23.043 euro). Gero, jaitsi egiten da 75 urte baino gehiago dutenentzat: 22.499 euro.

4.3. Pentsioak Gutxienerako Pentsioaren tartean arabera

Jasotako pentsioa tartetean banatzerakoan Gutxienerako Pentsioa (GP) erabili da. Bere balio 2024. urtean 10.966,2 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, lau tarte nabarmentzen dira:

- GParen 0,5 eta 1 arteko pentsioa jasotzaile guztien %9,4k jasotzen dute (17.503 pertsona).
- GParen 1 eta 1,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %21,2k jasotzen dute (39.319 pertsona).
- GParen 1,5 eta 2 arteko pentsioa jasotzaile guztien %14,8k jasotzen dute (27.517 pertsona).
- GParen 2 eta 2,5 arteko pentsioa jasotzaile guztien %13,5ek jasotzen dute (24.995 pertsona).

Taula 30. Pentsioak GParen tartean arabera – 2024

Errenta tarte (GP)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	5.917	3,2	17.609.833	0,4	2.976
0,5 - 1	17.503	9,4	145.160.596	3,2	8.293
1 - 1,5	39.319	21,2	509.533.894	11,4	12.959
1,5 - 2	27.517	14,8	527.813.741	11,8	19.181
2 - 2,5	24.995	13,5	612.766.995	13,7	24.516
2,5 - 3	19.614	10,6	588.592.360	13,1	30.009
3 - 3,5	15.197	8,2	540.278.991	12,1	35.552
3,5 - 4	15.801	8,5	649.428.088	14,5	41.100
4 - 4,5	17.932	9,7	802.746.032	17,9	44.766
4,5 - 5	674	0,4	34.859.563	0,8	51.720
> 5	835	0,5	54.480.258	1,2	65.246
Guztira	185.304	100,00	4.483.270.351	100,00	24.194

Zenbatekoak eurotan

(*) 2024an Gutxienerako Pentsioaren balio 10.966,2 eurokoa da

Azkenean, jasotzaile guztien %33,9k GParen 1,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 16.449,2 euro baino gutxiago. Eta ia-ia hiru laurdenak (%62,2) GParen 2,5 baino gutxiago jasotzen dute, hau da, 27.415,5 euro baino gutxiago.

Pentsioen zenbatekoari dagokionez, gehiena 4-4,5 tartean metatzen da (803 milioi euro; %17,9); gero 3,5-4 tarte dator (649 milioi euro; %14,5); eta 2-2,5 tarteko pentsiodunek 613 milioi euro kobratzen dituzte, guztiaren %13,7.



5 LANGABEZIA PRESTAZIOAK

2024. urtean langabezia prestazioak 45.976 pertsonak jaso dituzte, iaz baino %5,2 gehiagok. Zenbateko osoa 189 milioi eurokoa da, 2023an baino %9,3 handiagoa. Pertsonako batez bestekoa 4.105 euro izan dira.

Taula 31. Langabezia prestazioen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2015	52.855		184.648.737		3.493	
2016	47.665	-9,8	156.835.634	-15,1	3.290	-5,8
2017	44.705	-6,2	142.344.094	-9,2	3.184	-3,2
2018	43.365	-3,0	135.518.305	-4,8	3.125	-1,9
2019	46.583	7,4	156.524.981	15,5	3.360	7,5
2020	136.657	193,4	451.088.932	188,2	3.301	-1,8
2021	75.106	-45,0	265.055.811	-41,2	3.529	6,9
2022	48.702	-35,2	172.330.475	-35,0	3.538	0,3
2023	43.698	-10,3	172.692.830	0,2	3.952	11,7
2024	45.976	5,2	188.751.973	9,3	4.105	3,9
2015/2024		-13,0		2,2		17,5

Zenbatekoak eurotan

Azken hamar urteetan langabezia prestazioak jaso dituzten pertsona kopurua jaitsi egin da 6.879n: 52.855etik 45.976ra (-%13,0). 2018. urteraino, langabezia prestazioa jaso duten pertsona kopurua jaisten joan da. 2019an joera aldatu eta pertsona kopuruak gora egin du (+%7,4). 2020. urtean, covid-19aren ondorioz, igoera hau izugarri handitu da (+%193,4), eta 2021ean, 2022an eta 2023an behera egiten du, %45,0, %35,2 eta %10,3, hurrenez hurren. 2024an joera aldatzen da, eta %5,2a egiten du gora.

Jasotako prestazioei dagokionez, kasu honetan ere, igoerarik handiena 2020n eman zen (+%188,2).


Pertsonako batez besteko langabezia prestazioa %17,5 igo da hamar urteko epealdi honetan: 3.493 eurotik 4.105 eurora. Zenbatekorik handiena 2024koa izan da (4.105 euro).

5.1. Langabezia prestazioak sexuaren arabera

Soldata eta pentsioekin gertatu zaigun bezala, hemen ere jasotzaileen zenbait datu eskuratzeko hutsuneak ditugu; esaterako, pertsonen sexua lortzerakoan. Horrela, 2024. urtean langabezia prestazioa jasotzen duten 45.976 pertsonatik ez dugu ezagutzen 859ren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune txiki horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Langabezia prestazioa jasotzen duten guztietatik, %53,6 emakumezkoa da, eta beste %46,4 gizonezkoa. Zenbatekoari begiratzen badiogu, berriz, emakumezkoek guztiaren %49,8 jasotzen dute, eta gizonezkoek %50,2.

Grafikoa 11 – Langabezia prestazioen banaketa sexuaren arabera -2024



Azken hamar urteetan langabezia prestazio jaso duten emakumezko nahiz gizonezko kopuruaren bilakaera antzekoa izan da. 2020. urtean igoera handi bat eman zen eta 2021., 2022. eta 2023. urteetan berriz jaitsiera handia, dena ere covid-19ren ondorioz. 2024an berriro igoera ematen da:

- Emakumezkoen kopurua 25.491tik 24.194ra jaitsi da (-%5,1).
- Gizonezkoen kopurua 24.576tik 20.923ra jaitsi da (-%14,9).

Taula 32. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	25.491		24.576	
2016	23.818	-6,6	22.048	-10,3
2017	22.796	-4,3	20.067	-9,0
2018	23.035	1,0	19.510	-2,8
2019	24.047	4,4	21.272	9,0
2020	62.611	160,4	70.646	232,1
2021	36.845	-41,2	37.313	-47,2
2022	24.621	-33,2	22.875	-38,7
2023	22.767	-7,5	20.341	-11,1
2024	24.194	6,3	20.923	2,9
2015/2024		-5,1		-14,9

Zenbatekoan ere antzeko bilakaera ikusten da: emakumezkoak jaso dutena %10,5 igo da (84 milioi eurotik 93 milioi eurora), eta gizonezkoena %1,7 igo da (92 milioi eurotik 94 milioi eurora). 2020. urtean igoera handi bat eman zen eta 2021. eta 2022. urteetan berriz jaitsiera handia. 2023an joera aldatu da (zenbatekoak gora egin du) eta 2024an igoera hori finkatu da (emakumeetan %9,5a igo da eta gizonezkoetan %8,7 egin du gora).

Taula 33. Langabezia prestazioen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	83.890.340		91.956.972	
2016	74.316.603	-11,4	77.003.589	-16,3
2017	69.433.627	-6,6	67.255.408	-12,7
2018	68.496.655	-1,3	64.668.545	-3,8
2019	75.171.796	9,7	77.439.559	19,7
2020	201.861.046	168,5	238.507.420	208,0
2021	125.742.300	-37,7	135.871.494	-43,0
2022	82.698.151	-34,2	85.479.137	-37,1
2023	84.687.317	2,4	86.090.915	0,7
2024	92.695.519	9,5	93.555.157	8,7
2015/2024		10,5		1,7



5.2. Langabezia prestazioak nazionalitatearen arabera

Lehenago aipatu dugun bezala, espainiar nazionalitatea dutenen eta ez dutenen arteko bereizketa egingo dugu. Saikapen hori egiten da, NANaren lehen letraren arabera: X, Y edo Z atzerritarrentzat, eta beste guztiak espainiarrentzat.

Gipuzkoan bizi diren langabezia prestazio jasotzaileen nazionalitateari erreparatzen badiogu, gehiengo nagusia bertakoa dela ikusten da: 2024an %87,6 dira bertakoak eta beste %12,4 atzerritarrak.

Azken hamar urteetan atzerritarren partaidetza igo egin da: 2015ean 4.752 atzerritarrek jaso zuten langabezia prestazioa, eta 2024an 5.697 dira; hau da, %19,9 gehiago. 2015-2017 epealdiak jaitsierak erakusten ditu. 2018an, 2019an eta 2020an kopuruak gora egin du, eta 2021ean, 2022an eta 2023an berriro behera egiten du. 2024an %11,1 igo da.

Taula 34. Langabezia prestazioen jasotzaileen bilakaera nazionalitatearen arabera

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2015	48.103		4.752	
2016	43.293	-10,0	4.372	-8,0
2017	40.363	-6,8	4.342	-0,7
2018	38.866	-3,7	4.499	3,6
2019	41.638	7,1	4.945	9,9
2020	122.979	195,4	13.678	176,6
2021	66.406	-46,0	8.700	-36,4
2022	43.434	-34,6	5.268	-39,4
2023	38.572	-11,2	5.126	-2,7
2024	40.279	4,4	5.697	11,1
2015/2024		-16,3		19,9

Atzerritarren langabezia prestazioen zenbatekoan berriz igoera handiagoa izan da (%49,0); izan ere, beraiek jasotako zenbatekoa 2015ean 14 milioi euro izatetik, 2024an 21 milioi euro izatera pasa da (+%49,0). Bertakoak jasotakoak behera egin du zenbatekoan, 171 milioi eurotik 168 milioi eurora pasa da (-%1,6).



Taula 35. Langabezia prestazioen bilakaera nazionalitatearen arabera (eurotan)

	Bertakoak	Bar. %	Atzerritarrak	Bar. %
2015	170.684.651		13.964.085	
2016	144.453.135	-15,4	12.382.499	-11,3
2017	130.688.487	-9,5	11.655.608	-5,9
2018	123.795.099	-5,3	11.723.206	0,6
2019	142.580.651	15,2	13.944.330	18,9
2020	406.853.227	185,3	44.235.704	217,2
2021	236.541.967	-41,9	28.513.844	-35,5
2022	155.529.968	-34,2	16.800.506	-41,1
2023	154.543.750	-0,6	18.149.080	8,0
2024	167.947.752	8,7	20.804.220	14,6
2015/2024		-1,6		49,0

5.3. Langabezia prestazioak adinaren arabera

Jasotzaileen sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2024. urtean langabezia prestazioa 45.976 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 1.249ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

25 urtetik beherakoak jasotzaile guztien %6,8 dira; eta hortik aurrera banaketa nahiko orekatua da: 26-35 tartean %23,4a dago; 36 eta 45 urte tartean %20,6a; 46-55 tartean %23,6a; eta 55 urtetik gorakoen tartean %25,6a.

Taula 36. Langabezia prestazioak adin tarteen arabera - 2024

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	3.046	6,8	8.644.652	4,7	2.838
26-35	10.465	23,4	39.350.371	21,3	3.760
36-45	9.221	20,6	38.735.030	20,9	4.201
46-55	10.543	23,6	41.688.522	22,5	3.954
> 55	11.452	25,6	56.520.442	30,6	4.935
Guztira	44.727	100,00	184.939.018	100,0	4.135

Zenbatekoak eurotan

Langabezia prestazioaren zenbatekoari begiratuta, oreka oraindik ere handiagoa da. Lehen tartea izan ezik (%4,7), beste guztiak antzeko balioak dituzte:

- 26-35 tarreak zenbateko osoaren %21,3 metatzen du.
- 36-45 tarreak zenbateko osoaren %20,9 metatzen du.
- 46-55 tarreak zenbateko osoaren %22,5 metatzen du.
- 55 urtetik gorakoek zenbateko osoaren %30,6 metatzen dute.

5.4. Langabezia prestazioa LGSren tarteen arabera

Jasotako soldata tarreetan banatzerakoan Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) erabili da. Bere balio 2024. urtean 15.876 eurokoa da.

Jasotzaile kopuruari dagokionez, gehiengo nagusia (%87,9) lehen tartean dago; horrek esan nahi du 7.938 euro baino gutxiago jaso dituztela. LGSren 0,5 eta 1 bitartean 4.885 pertsonak jaso dute (%10,6); eta hortik aurrera, hau da, 15.876 euro edo gehiago jasotzaile guztien %1,5ek jasotzen du.

Taula 37. Langabezia prestazioak LGSren tarteen arabera – 2024

Errenta tartea (LGS)*	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 0,5	40.398	87,9	120.205.855	63,7	2.976
0,5 - 1	4.885	10,6	54.294.192	28,8	11.114
1 - 1,5	550	1,2	10.176.970	5,4	18.504
>1,5	143	0,3	4.074.955	2,2	28.496
Guztira	45.976	100,00	188.751.973	100,0	4.105

Zenbatekoak eurotan

(*) 2024an Lanbide arteko Gutxieneko Soldata 15.876 eurokoa da

Langabezia prestazioaren zenbatekoaren %63,7a lehen tartekoak jaso dute, eta batez bestekoa 2.976 eurokoa da. LGSren 0,5 eta 1 bitartean jasotzen dutenak, guztiaren %28,8 metatzen dute (54,3 milioi euro; batez beste 11.114 euro). Hurrengo tarteko jasotzaileak (LGS 1-1,5) aldiz zenbateko osoaren %5,4 jasotzen dute. Eta azken tartean portzentajea nabarmen jaisten da: LGS 1,5 aldiz baino gehiago jasotzen dutenena %2,2 da.

6 GIZARTE AURREIKUSPENENKO ERRESKATEAK

Atal honetan Gipuzkoako biztanleak Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Entitate (BGAE), Pentsio Plan (PP), Mutualitate eta antzeko sistemetatik egindako erreskateen zenbatekoak aztertuko dira.

Sistema horietara egindako kontribuzioak eta ekarpenak ekitaldi horretako PFEZren oinarri ezargarria murrizten dute. Hurrengo urteetan, zenbatekoak erreskatatzen direnean, PFEZn integratzen dira, lan etekin bezala. Erreskateak bi motatakoak izan daitezke:

- Errenta moduan egindakoak: urtero zenbateko bat jasotzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoa osoa PFEZren oinarri ezargarri orokorrean integratzen da, lan etekin bezala.
- Kapital moduan egindakoak: zenbateko guztia batera erreskatatzen da, eta orduan erreskatatutako zenbatekoaren %60a PFEZren oinarri ezargarrian integratzen da, lan etekin bezala.

6.1. Errenta moduan egindako erreskateak

2024. urtean errenta moduan 18.000 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %6,1 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa osoa (85 milioi euro) %14,3 jaitsi da 2023rekin alderatuta. Pertsonako batez bestekoa 4.713 euro izan dira.

Taula 38. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2015	16.434		95.025.688		5.782	
2016	15.875	-3,4	103.236.748	8,6	6.503	12,5
2017	16.351	3,0	98.285.381	-4,8	6.011	-7,6
2018	17.361	6,2	109.382.934	11,3	6.300	4,8
2019	18.119	4,4	104.097.668	-4,8	5.745	-8,8
2020	18.004	-0,6	100.124.500	-3,8	5.561	-3,2
2021	18.015	0,1	95.892.213	-4,2	5.323	-4,3
2022	18.513	2,8	99.420.020	3,7	5.370	0,9
2023	19.166	3,5	99.007.941	-0,4	5.166	-3,8
2024	18.000	-6,1	84.830.292	-14,3	4.713	-8,8
2015/2024		9,5		-10,7		-18,5


Zenbatekoak eurotan

6.1.1. Errenta moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Beste atal batzuetan aipatu dugun bezala, jasotzaileei buruzko informazioa eskuratzerakoan, zenbait aitorpenetan datu batzuk jaso gabe daudela konturatu gara; esaterako, pertsonen sexua. Horrela, 2024. urtean erreskateak errenta moduan egiten dituzten 18.000 pertsonetatik, ez dugu ezagutzen 85aren sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %37,7 emakumezkoak dira, eta beste %62,3 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %32,8 erreskatatzen dute, eta gizonezkoek %67,2.

Grafikoa 12 – Errenta moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2024



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2024. urtean 4.107 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 5.098 eurokoa.

Gizarte aurreikuspeneko sistematara egiten diren kontribuzio eta ekarpen asko lan kontratuari lotuta daude. Horregatik, emakumezkoen presentzia lan merkatuan handitu den neurrian, erreskateetan duten parte-hartzea ere handitu egin da. Horrela, azken hamar urteetan errenta moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 6.954tik 6.754ra (-%2,9) pasa da. Gizonezkoak, berriz, 8.997tik 11.161era pasa dira (+%24,1).

Taula 39. Errenta moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	6.954		8.997	
2016	6.706	-3,6	8.725	-3,0
2017	6.815	1,6	9.361	7,3
2018	7.359	8,0	9.856	5,3
2019	7.707	4,7	10.224	3,7
2020	7.675	-0,4	10.096	-1,3
2021	7.709	0,4	10.038	-0,6
2022	7.769	0,8	10.391	3,5
2023	8.069	3,9	10.728	3,2
2024	6.754	-16,3	11.161	4,0
2015/2024		-2,9		24,1

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2015ean emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 36 milioi euro izan ziren bitartean, 2024an 28 milioi euro izan dira; hau da, %22,2 gutxiago.

Taula 40. Errenta moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	35.646.621		57.882.087	
2016	34.141.762	-4,2	67.570.153	16,7
2017	33.383.960	-2,2	64.002.666	-5,3
2018	37.130.289	11,2	71.631.590	11,9
2019	37.812.722	1,8	65.576.119	-8,5
2020	37.034.395	-2,1	62.156.777	-5,2
2021	37.109.451	0,2	57.892.399	-6,9
2022	35.646.621	-3,9	57.882.087	0,0
2023	39.378.755	10,5	57.671.707	-0,4
2024	27.736.839	-29,6	56.904.311	-1,3
2015/2024		-22,2		-1,7

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %1,7 jaitsi dira hamar urte hauetan: 58 milioi eurotik 57 milioi eurora.

6.1.2. Errenta moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2024. urteko 18.000 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 117ren adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez

dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2024. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (191; guztiaren %1,1) egin dituzte erreskateak. Adinean aurrera joan ahala, kopurua handitu egiten da: 26-35 urte bitartekoak %1,4 dira; 36-55 bitartekoak %10,8; 56-65 bitartekoak %20,0; 66-75 bitartekoak %41,8; eta, azkenik, errenta moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %25,0k 75 urte baino gehiago dute.

Taula 41. Errenta moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera - 2024

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	191	1,1	534.717	0,6	2.800
26-35	258	1,4	840.023	1,0	3.256
36-55	1.927	10,8	5.550.827	6,6	2.881
56-65	3.578	20,0	18.030.333	21,3	5.039
66-75	7.467	41,8	30.994.040	36,7	4.151
>75	4.462	25,0	28.561.547	33,8	6.401
Guztira	17.883	100,00	84.511.487	100,0	4.726

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 55 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %8,2a erreskatatzen dute; 56-65 bitartekoak %21,3; 66-75 bitartekoak %36,7; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %33,8.

Datuak horrela izanda, erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekoa nabarmen handitzen da adinean aurrera goazen neurrian. Horrela, azken hiru tarteak 4.151 eurotik gorako batez besteko zenbatekoak dituzte.

6.1.3. Errenta moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2024an erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, %59,0k 1.000 euro eta 5.000 euro bitarteko errenta jaso du. Ondoren datoz 0 eta 500 euro bitartean jaso dutenak (%14,7), eta gero 5.000 eta 10.000 euro bitartekoak (%10,9). 10.000 euro eta 20.000 euro bitartekoak kopuru osoaren %6,5 dira (1.175 pertsona); beste 943 pertsonak (%6,1) 500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dute. Tarte handienetan, berriz, 506 pertsonak (guztien %2,8) 20.000–50.000 euro bitarteko zenbatekoa

erreskatatu du; eta 50.000 euro baino gehiago 142 pertsonak erreskatatu dute.

Taula 42. Errenta moduko erreskateak tarteen arabera – 2024

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	2.642	14,7	431.938	0,5	163
500 - 1.000	943	5,2	720.755	0,8	764
1.000 - 5.000	10.623	59,0	26.137.499	30,8	2.460
5.000 - 10.000	1.969	10,9	13.921.234	16,4	7.070
10.000 - 20.000	1.175	6,5	16.355.116	19,3	13.919
20.000 - 50.000	506	2,8	14.803.146	17,5	29.255
>50.000	142	0,8	12.460.605	14,7	87.751
Guztira	18.000	100,00	84.830.292	100,00	4.713

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua handiago da:

- 1.000–5.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %30,8 erreskatatzen dute (26 milioi euro).
- 10.000-20.000 tartekoek erreskatatzen dutenak: 16 milioi euro (%19,3).
- 20.000-50.000 tartekoek 15 milioi euro erreskatatu dituzte (%17,5).
- 5.000-10.000 tartean daudenak %16,4 (14 milioi euro).
- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (12 milioi euro), zenbateko osoaren %14,7 dira.
- Beheko bi tartekak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,5, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,8.

6.1.4. Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2024an errenta moduan erreskateak egin dituzten 18.000 pertsonetatik 15.006k (%83,4) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 2.994 pertsonak (%16,6) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Nolabait ulertu daiteke, pentsio publikoa eta errenta moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, urtero horrela egingo dutela. Hau da, gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala erabiltzen dutela.

Erreskatatutako 85 milioi eurotik, 70 milioi (%82,2) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 15 milioi euro (%17,8) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.

Batez beste erreskatea 4.645 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 5.052 eurokoa besteentzat.


Grafikoa 13 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2024



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 32.183 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, 2024an guztira 36.829 euro jaso dute, %87,4a pentsio publikoetatik eta beste %12,6 gizarte aurreikuspeneko entitateetatik errenta moduan egindako erreskateetatik.

Erreskatatutako batez besteko zenbatekoa (4.645 euro) pentsio publikoaren batez bestekoaren (32.183 euro) %14,4 da.

Grafikoa 14 – Errenta moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2024



6.2. Kapital moduan egindako erreskateak

2024. urtean kapital moduan 8.588 pertsonak egin dituzte erreskateak, iaz baino %2,7 gutxiagok. Erreskatatutako zenbatekoa igo egin da (+%3,1), eta 168 milioi eurotara iritsi da. Pertsonako batez bestekoa 19.587 euro izan dira.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egin dituzten pertsona kopurua %42,7 jaitsi da: 15.000tik 8.588ra. 2018 eta 2022 urteek kenduta (+%1,4 eta +%4,4), beste guztietan jaitsierak eman dira.

Taula 43. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera

	Kopurua	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Batez beste	Bar. %
2015	15.000		225.034.282		15.002	
2016	12.431	-17,1	212.180.722	-5,7	17.069	13,8
2017	11.862	-4,6	198.313.718	-6,5	16.718	-2,1
2018	12.024	1,4	189.816.980	-4,3	15.787	-5,6
2019	10.506	-12,6	185.353.076	-2,4	17.643	11,8
2020	9.393	-10,6	182.095.334	-1,8	19.386	9,9
2021	8.460	-9,9	150.634.699	-17,3	17.806	-8,2
2022	8.836	4,4	152.468.456	1,2	17.255	-3,1
2023	8.822	-0,2	163.173.695	7,0	18.496	7,2
2024	8.588	-2,7	168.214.599	3,1	19.587	5,9
2015/2024		-42,7		-25,2		30,6

Zenbatekoak eurotan

Erreskatatutako zenbatekoei dagokionez, %25,2 jaitsi dira 2015. urtetik: 225 milioi eurotik 168 milioi eurora. Mailarik handien 2015. urtean lortu zen: 225 milioi euro.


Pertsonako batez besteko erreskatea %30,6 igo da azken hamar urteetan: 15.002 eurotik 19.587 eurora.

6.2.1. Kapital moduan egindako erreskateak sexuaren arabera

Erreskateak egiten dituzten pertsonen zenbait datu eskuratzerakoan hutsuneak ditugu; esaterako, sexua lortzerakoan. Horrela, 2024. urteko 8.588 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 18n sexua. Horregatik, sexuen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %43,8 emakumezkoak dira, eta beste %56,2 gizonezkoak. Baina zenbatekoari begiratzen badiogu, emakumezkoek guztiaren %39,6 erreskatatzen dute (67 milioi euro), eta gizonezkoek %60,4 (102 milioi euro).

Grafikoa 15 – Kapital moduan egindako erreskateen banaketa sexuaren arabera -2024



Banaketa hori kontuan izanda, emakumezkoen erreskatearen batez bestekoa 2024. urtean 17.750 eurokoa da, eta gizonezkoena, berriz, 21.073 eurokoa.

Azken hamar urteetan kapital moduan erreskateak egiten dituzten emakume kopurua 6.334tik 3.751ra jaitsi da (-%40,8). Gizonezkoak, berriz, 8.408tik 4.819ra pasa dira (-%42,7).

Taula 44. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten pertsona kopuruaren bilakaera sexuaren arabera

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	6.334		8.408	
2016	5.186	-18,1	7.058	-16,1
2017	4.887	-5,8	6.848	-3,0
2018	5.047	3,3	6.927	1,2
2019	4.426	-12,3	5.976	-13,7
2020	3.965	-10,4	5.310	-11,1
2021	3.713	-6,4	4.672	-12,0
2022	3.871	4,3	4.892	4,7
2023	3.840	-0,8	4.891	0,0
2024	3.751	-2,3	4.819	-1,5
2015/2024		-40,8		-42,7

Kopuruaren antzeko bilakaera izan du erreskatatutako zenbatekoak. Horrela, 2015ean emakumezkoek erreskatatutako zenbatekoa 83 milioi euro izan ziren bitartean, 2024an 67 milioi euro izan dira; hau da, %20,3 gutxiago.

Taula 45. Kapital moduan egindako erreskateen bilakaera sexuaren arabera (eurotan)

	Emakumezkoak	Bar. %	Gizonezkoak	Bar. %
2015	83.497.209		139.719.531	
2016	73.264.430	-12,3	137.768.065	-1,4
2017	69.351.533	-5,3	128.109.863	-7,0
2018	72.677.961	4,8	116.550.078	-9,0
2019	68.169.303	-6,2	116.278.853	-0,2
2020	65.941.514	-3,3	114.314.195	-1,7
2021	59.304.411	-10,1	90.670.695	-20,7
2022	59.437.098	0,2	92.485.818	2,0
2023	64.081.654	7,8	97.538.397	5,5
2024	66.579.371	3,9	101.552.787	4,1
2015/2024		-20,3		-27,3

Gizonezkoek egindako erreskateak, berriz, %27,3 jaitsi dira hamar urte hauetan: 140 milioi eurotik 102 milioi eurora (epealdiko erreskate handiena 2015. urtean izan zen, 140 milioi euro).

6.2.2. Kapital moduan egindako erreskateak adinaren arabera

Sexuarekin gertatzen zitzaigun bezala, hemen ere zenbait hutsune ditugu pertsonen adina lortzerakoan. Horrela, 2024. urteko 8.588 pertsonetatik ez dugu ezagutzen 33n adina. Horregatik, adin tarteen batuketa ez dator bat kopuru eta zenbateko osoekin. Dena den, hutsune horrek ez dio adierazgarritasunik kentzen emaitzei.

2024. urtean 25 urtetik beherako pertsona oso gutxi (88; guztiaren %1,0) egin dituzte erreskateak kapital moduan, eta 26-35 bitartekoak 196 dira (%2,3). 36-75 tartea dira pertsona gehien metatzen dituztenak: 36-55 bitartekoak %21,6, 56-65 bitartekoak %43,4 eta 66-75 bitartekoak %24,3. Kapital moduan erreskateak egiten dituzten guztietatik, %7,4k 75 urte baino gehiago dute.

Taula 46. Kapital moduan egindako erreskateak adin tarteen arabera - 2024

Adin tartea	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
<25	88	1,0	891.793	0,5	10.134
26-35	196	2,3	1.383.362	0,8	7.058
36-55	1.846	21,6	17.064.037	10,2	9.244
56-65	3.712	43,4	87.214.479	51,9	23.495
66-75	2.079	24,3	49.887.195	29,7	23.996
>75	634	7,4	11.527.309	6,9	18.182
Guztira	8.555	100,00	167.968.175	100,0	19.634

Zenbatekoak eurotan

Erreskatearen zenbatekoari begiratuta, antzeko ondorioak ateratzen dira: gazteenak, 35 urte baino gutxiago dutenek, zenbateko osoaren %1,4a erreskatatzen dute; 36-55 bitartekoak %10,2; 56-65 bitartekoak guztiaren erdia baino gehiago (%51,9); 66-75 bitartekoak %29,7; eta, zaharrenek, 75 urte baino gehiagokoak, %6,9.

Datuak horrela izanda, kapital moduan erreskatatutako batez bestekoaren zenbatekorik altuena 66-75 urtekoek dute: 23.996 euro.

6.2.3. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera

2024an kapital moduan erreskatatutako zenbatekoari begiratuta, %23,2k 1.000 eta 5.000 euro bitartean jaso ditu. Ondoren datoz 20.000 eta 50.000 euro bitartean jaso dutenak (%19,9), gero 10.000 – 20.000 euro



bitartekoak (%19,6), eta 5.000–10.000 euro bitarteko zenbatekoa erreskatatu dutenak %14,0 dira.

Taula 47. Kapital moduan egindako erreskateak tarteen arabera – 2024

Tartea (eurotan)	Kopurua	%	Zenbatekoa	%	Batez bestekoa
0 - 500	644	7,5	100.443	0,1	156
500 - 1.000	560	6,5	413.305	0,2	738
1.000 - 5.000	1.995	23,2	5.451.097	3,2	2.732
5.000 - 10.000	1.200	14,0	8.870.934	5,3	7.392
10.000 - 20.000	1.682	19,6	24.692.372	14,7	14.680
20.000 - 50.000	1.705	19,9	54.689.118	32,5	32.076
>50.000	802	9,3	73.997.331	44,0	92.266
Guztira	8.588	100,00	168.214.599	100,00	19.587

Zenbatekoak eurotan

500 euro eta 1.000 euro bitartean erreskatatu dutenak, kopuru osoaren %6,5 dira (560 pertsona); zenbateko gutxien erreskatatu dutenak (500 euro baino gutxiago) beste 644 pertsona dira (%7,5). Tarte handiengan (50.000 euro baino gehiago), berriz, 802 pertsona daude, guztien %9,3.

Erreskatatutako zenbatekoari dagokionez, tarte altuen pisua nabarmen handiago da:

- 50.000 euro baino gehiago erreskatatzen dutenak (74 milioi euro), zenbateko osoaren %44,0 dira.
- 20.000-50.000 tartean daudenak %32,5 (55 milioi euro).
- 10.000–20.000 tartean daudenak zenbateko osoaren %14,7 erreskatatzen dute (25 milioi euro).
- 5.000-10.000 tartekoek 9 milioi euro erreskatatu dituzte (%5,3).
- 1.000-5.000 tartekoak: 5 milioi euro (%3,2).
- Beheko bi tarteak oso pisu txikia dute: 500 euro baino gutxiagokoak %0,1, eta 500-1.000 euro bitartekoak %0,2.

6.2.4. Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak


2024an kapital moduan erreskateak egin dituzten 8.588 pertsonetatik 5.410k (%63,0) pentsio publikoa ere kobratzen dute; beste 3.178 pertsonak (%37,0) ez dute pentsio publikoa gizarte aurreikuspeneko erreskatearekin bateratzen.

Pentsio publikoa eta kapital moduan egindako erreskatea bat egiten dutenek, ez dute erabiltzen gizarte aurreikuspeneko erreskatea bere bizitzan zehar izango duen pentsio publikoaren osagarri bezala. Baizik eta urte zehatz batean egindako aukeraketa bat da, hurrengoetan errepikatuko ez dena.

Guztira erreskatatutako 168 milioi eurotik, 131 milioi (%78,1) pentsio publikoarekin bateragarri egin dutenak metatzen dute. Eta beste 37 milioi euro (%21,9) erreskatatu dituzte pentsio publikorik jasotzen ez dutenek.


Batez beste erreskatea 24.283 eurokoa da pentsio publikoa ere jasotzen dutenentzat, eta 11.593 eurokoa besteentzat.

Grafikoa 16 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak - 2024



Bestalde, pentsio publikoa kobratzen duten horiek 24.685 euroko batez besteko pentsioa jaso dute. Beraz, gehiago jasotzen dute pentsio publikoetatik (24.283 euro) gizarte aurreikuspeneko entitateetako erreskateetatik baino.

Grafikoa 17 – Kapital moduan egindako erreskateak eta pentsio publikoak 2024



6.3. Errenta moduan eta kapital moduan egindako erreskateak

Gizarte aurreikuspeneko erreskateak egiteko modua berdintsu mantendu da azken hamar urteetan: 2015. urtean erreskate guztien %52,3a errenta moduan egiten zen, eta 2024an, aldiz, %67,7a egiten da, hau da, 15,4 puntu gehiago.

Era berean, kapital moduan egindako erreskateak 15.000 izatetik (%47,7) 8.588 izatera (%32,3) pasa dira 2015etik 2024ra.

Taula 48. Errenta eta kapital moduan egindako erreskate kopuruaren bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	Kopurua	Bar. %	% errenta	% kapital
2015	16.434		15.000		31.434		52,3	47,7
2016	15.875	-3,4	12.431	-17,1	28.306	-10,0	56,1	43,9
2017	16.351	3,0	11.862	-4,6	28.213	-0,3	58,0	42,0
2018	17.361	6,2	12.024	1,4	29.385	4,2	59,1	40,9
2019	18.119	4,4	10.506	-12,6	28.625	-2,6	63,3	36,7
2020	18.004	-0,6	9.393	-10,6	27.397	-4,3	65,7	34,3
2021	18.015	0,1	8.460	-9,9	26.475	-3,4	68,0	32,0
2022	18.513	2,8	8.836	4,4	27.349	3,3	67,7	32,3
2023	19.166	3,5	8.822	-0,2	27.988	2,3	68,5	31,5
2024	18.000	-6,1	8.588	-2,7	26.588	-5,0	67,7	32,3
2015/2024		9,5		-42,7		-15,4		

Zenbatekoa begiratuta ere, erreskateak egiteko modua berdintsu mantendu da:

- 2015ean erreskatatutako zenbateko osoaren %29,7a errenta moduan egiten zen, eta beste %70,3a kapital moduan; 320 milioi eurotik 95 milioi euro errenta bezala eta 225 milioi euro kapital moduan.
- 2024an errenta moduak egindako erreskateak 85 milioi euro izan dira eta kapital moduan egindakoak 168 milioi euro; zenbateko osoaren %33,5 eta %66,5, hurrenez hurren.

2015-2024 epealdian erreskate guztiaren erdia baino gehiago kapital moduan egiten da.

Taula 49. Errenta eta kapital moduan egindako erreskateen zenbatekoen bilakaera

	Errenta moduan		Kapital moduan		Guztira			
	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	Zenbatekoa	Bar. %	% errenta	% kapital
2015	95.025.688		225.034.282		320.059.970		29,7	70,3
2016	103.236.748	8,6	212.180.722	-5,7	315.417.470	-1,5	32,7	67,3
2017	98.285.381	-4,8	198.313.718	-6,5	296.599.099	-6,0	33,1	66,9
2018	109.382.934	11,3	189.816.980	-4,3	299.199.914	0,9	36,6	63,4
2019	104.097.668	-4,8	185.353.076	-2,4	289.450.744	-3,3	36,0	64,0
2020	100.124.500	-3,8	182.095.334	-1,8	282.219.834	-2,5	35,5	64,5
2021	95.892.213	-4,2	150.634.699	-17,3	246.526.912	-12,6	38,9	61,1
2022	99.420.020	3,7	152.468.456	1,2	251.888.476	2,2	39,5	60,5
2023	99.007.941	-0,4	163.173.695	7,0	262.181.636	4,1	37,8	62,2
2024	84.830.292	-14,3	168.214.599	3,1	253.044.892	-3,5	33,5	66,5
2015/2024		-10,7		-25,2		-20,9		

Zenbatekoak eurotan